



AURRERAPENA
AVANCE

HAPoaren BERRIKUSPENA REVISIÓN DEL PGOU

2026ko APIRILA ABRIL de 2026

Dokumentu hau Leioako HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO beharrezkoak diren lanen barruan dago.

Dokumentu hau idazteko, honako laguntza tekniko hau izan da:

- Aitor Sarria, estudio·k
- Iñigo Gandarias, estudio·k
- Jesus Pozo, estudio·k
- Gorka Beristain, Beristan & asociados
- Cristina Lopez, Basoinsa
- Teresa Roca, Torrene Consulting

Este documento forma parte de los trabajos necesarios para la REVISIÓN del PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA de Leioa.

Para la redacción de este documento se ha contado con la asistencia técnica de:

- Aitor Sarria, estudio·k
- Iñigo Gandarias, estudio·k
- Jesus Pozo, estudio·k
- Gorka Beristain, Beristan & asociados
- Cristina Lopez, Basoinsa
- Teresa Roca, Torrene Consulting

EDUKIA

1. SARRERA	6
1.1. ARAU-TESTUINGURUA	6
1.2. ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAREN TESTUINGURUA	6
1.3. LANAREN HELBURUA	8
2. DIAGNOSTIKO INTEGRALA ETA ONDORIOAK.....	8
2.1. BESTE PLAN BATZUEKIKO INTERAKZIOA. LURRALDE-PLANGINTZA	8
2.2. UDAL-PLANGINTZA	11
2.3. INGURUMEN-DIAGNOSTIKOA	11
2.3.1. NEKAZARITZAKO UNITATEA, BATEZ ERE BELARDI ETA LABORE ATLANTIKOENA	11
2.3.2. HEZEGUNEEN UNITATEA	12
2.3.3. IBAI ETA ERREKASTOEN UNITATEA	13
2.3.4. BASO-BERRITZEEN UNITATEA	13
2.3.5. SASTRAKA-UNITATEA	13
2.3.6. HOSTOZABAL-BASO NATURALEN UNITATEA	13
2.3.7. HIRI-UNITATEA	14
2.3.8. MERKATARITZA- ETA INDUSTRIA-UNITATEA	14
2.4. GIZARTEA	14
2.5. EKIPAMENDUAK	15
2.6. ESPAZIO LIBREAK ETA BERDEGUNEAK	16
2.7. ZERBITZU-AZPIEGITURAK ETA -SAREAK	16
2.8. MUGIKORTASUNA	16
2.9. ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA	17
2.9.1. EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILA	17
3. HERRITARREN PARTE-HARTZEA	19
3.1. PROZESUAREN HELBURUAK	19
3.2. OHAR METODOLOGIKOA	19
3.2.1. 1. FASEA. DOIKUNTZA METODOLOGIKOA ETA PROZESUAREN AURKEZPENA	19
3.2.2. 2. FASEA. PROZESUKO PARTE-HARTZAILEAK IDENTIFIKATZEA ETA HAIEKIN HARREMANETAN JARTZEA	20
3.3. EKARPENAK BILTZEA	20
3.4. LORTUTAKO EMAITZAK	21
3.4.1. NATURA-INGURUNEA	21
3.4.2. MUGIKORTASUNA	21
3.4.3. ESPAZIO PUBLIKOA	22
3.4.4. ETXEBIZITZA	22
3.4.5. JARDUERA EKONOMIKOA	22
3.4.6. EKIPAMENDUAK	23
3.4.7. ONDAREA	23
3.4.8. JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA	23
3.4.9. INKLUSIBOTASUNA ETA OSASUNA	23
4. IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK	24
4.1. INGURUMEN-ALDERDIAK	24
4.2. INGURUNE FISIKOA	25
4.3. HIRI-INGURUNEA	28
4.4. BIZITEGI-LURZORUA	28
4.5. JARDUERA EKONOMIKOAK	28

4.6.	EKIPAMENDUAK.....	29
4.7.	ERREPIDE-SAREAK ETA GARRAIOAK.....	30
4.8.	ZERBITZU-SAREAK.....	30
4.9.	ONDARE HISTORIKO, ARTISTIKO ETA KULTURALA.....	31
5.	ETXEBIZITZEN KUANTIFIKAZIOA.....	31
5.1.	METODOLOGIA.....	31
5.2.	KUANTIFIKAZIOA.....	32
6.	INGURUNE FISIKOARI DAGOKIONEZ HAPO BERRIRAKO PROPOSAMENA.....	38
6.1.	LURZORU URBANIZAEZINAREN KATEGORIZAZIOA ETA ERABILERAK.....	38
6.1.1.	BABES BEREZIKO ZONAK (BB).....	39
6.1.2.	INGURUMEN-HOBEKUNTZAKO ZONAK (IH).....	40
6.1.3.	AZALEKO URAK BABESTEKO ZONAK (AUB).....	41
6.1.4.	BALIO ESTRATEGIKO HANDIKO LANDAZABALEKO ZONAK (C.1).....	42
6.1.5.	LANDAZABAL-EREMUAK, TRANTSIZIOKO LANDA-PAISAIA (LZ.2).....	43
6.1.6.	BASO-LURZORUEN ZONAK.....	44
6.2.	INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDU-MATRIZEA.....	46
6.3.	GAINJARRITAKO BALDINTZAK.....	48
6.3.1.	AZPIEGITURA BERDEAREN GAINJARRITAKO BALDINTZAK.....	48
6.3.2.	ARRISKU NATURALEN ETA KLIMA-ALDAKETAREN GAINJARRITAKO BALDINTZAK.....	50
6.3.3.	GAINJARRITAKO BESTE BALDINTZA BATZUK.....	53
6.4.	AZPIEGITURA BERDEA.....	55
6.5.	KONPARAZIO-DATUAK INDARREAN DEN HAPORI DAGOKIONEZ.....	56
7.	BIDE- ETA TRENBIDE-AZPIEGITUREN SISTEMA OROKORREN UDALAZ GAINDIKO SAREA ETA ZERBITZU-SAREAK.....	57
7.1.1.	BIDEEN SAREA.....	57
7.1.2.	TRENBIDE SAREA.....	57
7.1.3.	ZERBITZU SAREA.....	57
7.1.4.	LABURPEN TAULA.....	58
8.	HAPO BERRIRAKO PROPOSAMENA, HIRI-HABITATARI DAGOKIONEZ.....	59
8.1.	“0” ALTERNATIBA.....	60
8.1.1.	BIZITEGI-EREDUAREN PROPOSAMENA.....	60
8.1.2.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO KOKALEKUEN EREDUAREN PROPOSAMENA.....	62
8.1.3.	UDAL SISTEMA OROKORREN SAREAREN EREDUA PROPOSATZEA.....	63
8.2.	A ALTERNATIBA.....	64
8.2.1.	BIZITEGI-EREDUAREN PROPOSAMENA.....	64
8.2.2.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO KOKALEKUEN EREDUAREN PROPOSAMENA.....	72
8.2.3.	EKIPAMENDU PRIVATU KOMUNITARIOEN PROPOSAMENA.....	77
8.2.4.	UDAL SISTEMA OROKORREN SAREAREN EREDUA PROPOSATZEA.....	78
8.3.	B ALTERNATIBA.....	83
8.3.1.	BIZITEGI-EREDUAREN PROPOSAMENA.....	83
8.3.2.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO KOKALEKUEN EREDUAREN PROPOSAMENA.....	87
8.3.3.	SISTEMA OROKORREN SARE-EREDUAREN PROPOSAMENA.....	88
8.4.	C ALTERNATIBA.....	89
8.4.1.	BIZITEGI-EREDUAREN PROPOSAMENA.....	89
8.4.2.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO KOKALEKUEN EREDUAREN PROPOSAMENA.....	93

8.4.3.	UDAL-SISTEMA OROKORREN SARE-EREDUAREN PROPOSAMENA	95
8.5.	D ALTERNATIBA	96
8.5.1.	BIZITEGI-EREDUAREN PROPOSAMENA	96
8.5.2.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO KOKALEKUEN EREDUAREN PROPOSAMENA	100
8.5.3.	SISTEMA OROKORREN SARE-EREDUAREN PROPOSAMENA	102
8.6.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO KOKAGUNEEN ETA BIZITEGI-EREDUKO JARDUKETEN LABURPEN-TAULA.....	103
8.6.1.	BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA.....	103
8.6.2.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO KOKALEKUEN EREDUAREN PROPOSAMENA	104
9.	KATALOGOAREN AURRERAPENA.....	106
10.	ONDORIOA.....	108
11.	ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIO ORDENANTZEN AURRERAPENA	111
11.1.	ERAIKUNTZA ORDENANTZAREN AURRERAPENA	111
11.2.	URBANIZAZIO ORDENANTZEN AURRERAPENA.....	113
12.	ERANSKINA: HAPOKO JARDUEREN LABURPEN-TAULA	115
12.1.	SAILKAPENA.....	115
12.2.	ERABILERA OROKORRAK.....	115
12.3.	ETXEBIZITZAK.....	117
12.4.	BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA.....	117
12.5.	BIZITEGI-JARDUKETA OROKORRAK.....	118
12.6.	HIRI-LURZORUKO BIZITEGI-JARDUKETA XEHATUAK.....	119
12.7.	LURZORU URBANIZAGARRIKO BIZITEGI-JARDUKETA XEHATUA.....	126
12.8.	SISTEMA OROKORREN SAREA.....	128

1. SARRERA

1.1. ARAU-TESTUINGURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalerrietako hiri-antolamenduko plan orokorrak berrikusteko prozesuak 2/2006 Legean jasota daude, besteak beste (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa: 90., 91. eta 102. artikulua). Izapide horrekin batera, ingurumen-ebaluazioa egin behar da, azken hori «administrazio-prozedura instrumental» gisa hartzen baita planak onartzeko funtsezko prozedura sektorialari dagokionez.

Horrenbestez, 46/2020 Dekretuaren 26.etik 29.era eta 34.etik 36.era bitarteko artikuluetan (46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen), lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aipatzen den plan orokorrak berrikusteko prozesua garatzen da EAEn esparruan, baita haren barruan ingurumen-ebaluazioa egiteko prozesua txertatzeko modua ere.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar aplikagarriak diren lurraldeko eta sektoreko lege ugariak; haietan jasotakoak prozesu osoan izan behar dira kontuan.

1.2. ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAREN TESTUINGURUA

Azaroaren 29ko 3360/18 Dekretuaren bidez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko lanei ekitea erabaki zen, baita hura idazteko laguntza-zerbitzua kontratatzeko izapidearen administrazio-espeditentari hasiera ematea ere.

2020ko urriaren 29an egindako bilkuran, Udalbatzak espedientea eta Leioako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspen-dokumentua prestatzeko laguntza teknikoko zerbitzuen administrazio-kontratuko baldintza-agiriak onartzea erabaki zuen; 2021eko maiatzean eta ekainean esleitu zitzaion laguntza tekniko talde tekniko, juridiko eta ingurumenekoari, udal-bulego teknikoari berrikuspen-dokumentua idazten lagun ziezaion.

Irailaren 22ko 3433/21 Dekretuaren bidez, hauek egitea adostu zen, besteak beste: HAPO berrikusteko prozedura hastea, Herri Partaidetzako Programaren proposamena onartzea, dagozkion iragarkiak argitaratzea, eta babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta natura-ingurunearen arloetan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko organoei antolamenduan dauden arriskuei eta errespetatu behar diren ingurumeneko, kultura-ondarearen babeseko eta natura-inguruneako eragilei buruzko informazioa bidaltzeko eskaera izapidetzea, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretu horretan adierazitakoari jarraikiz, 2021eko azaroaren 9an, kasuan kasuko iragarkiak argitaratu ziren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, eta berriazko atal bat jarri zen Udalaren Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Atarian abian jarritako prozesuari dagokionez eta prozesu osoaren bideratzaile gisa ([HAPO Leioa - Gardentasunaren ataria](#) - [Gardentasunaren ataria](#)). Txostenak eskatzeari dagokionez, txosten-eskaerak jaso dituzten administrazio edo erakundeen zerrenda dago beheko taulan (erantzun duten ala ez ere aipatzen da):

- Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila. (erantzun dute).
- Bizkaiko Foru Aldundia. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila.
- Bizkaiko Foru Aldundia. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila.
- Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. (erantzun dute).
- Eusko Jaurlaritza. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (erantzun dute).
- Eusko Jaurlaritza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. (erantzun dute).
- Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila.
- Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila. (erantzun dute).

- Eusko Jaurlaritza. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza. (erantzun dute).
- Uraren Euskal Agentzia (erantzun dute)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea (erantzun dute).
- Bizkaiko Garraio Partzuergoa. (erantzun dute).
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
- Emakunde (erantzun dute).
- Euskal Trenbide Sarea
- IHOBE
- Espainiako Gobernu. Telekomunikazioetako Zuzendaritza Nagusia. (erantzun dute).
- Espainiako Gobernu. Hegazkingintza Zibileko Zuzendaritza Nagusia. (erantzun dute).
- Espainiako Gobernu. Trenbide Sarearen Plangintza eta Ebaluaziorako Zuzendaritza Nagusia. (erantzun dute).
- Espainiako Gobernu. Euskal Herriko Kostaldean Demarkazioa. (erantzun dute).
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa. (erantzun dute).

Gainera, “Partaidetza-txostena – 1. fasea. Diagnostikoa” izeneko dokumentuan azaltzen den bezala, azarotik martxora Partaidetza Programako hainbat ekintza gauzatu dira; besteak beste, hauek:

- Saioa Udal Plangintzako Aholku Batzordearekin
- Erakusketa bide publikoan
- Prestakuntza-hitzaldiak
- Partaidetza digitala
- Partaidetza-saioak
- Elkarrizketak

Gainera, “Partaidetza-txostena – 2. fasea. Aurrerapena” izeneko dokumentuan azaltzen den bezala, azarotik martxora Partaidetza Programako hainbat ekintza gauzatu dira; besteak beste, hauek:

- Erakusketa bide publikoan
- Partaidetza digitala
- Partaidetza-saioak

1.3. LANAREN HELBURUA

“Plan Orokorra berrikusteko dokumentuaren aurrerapenaren” edo aurrerapenaren fase honek autonomia- eta foru-administrazio sektorialeki egindako kontsulten hirigintza- eta ingurumen-informazioaren azterketa eta analisi bat du, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritakoaren arabera.

Dokumentuak hainbat atal ditu; esaterako:

- Lehenik, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria egitearen komenigarritasuna eta egokitasuna justifikatu da.
- Bigarrenik, HAPO berrikusteko prozesuan kontuan hartu beharreko aldagaiak aztertu dira; alderdi hauekin lotuta daude: lurralde- eta udal-plangintza, ingurumena, gizarte- eta hirigintza-testuingurua eta Leioaren egungo egoera ekipamenduen sareari, espazio libreei eta mugikortasunari dagokienez.
- Hirugarrenik, Leioako kultura-ondarearen egungo balorazioa egin da.
- Azkenik, azken hilabeteetan gauzatutako partaidetza-prozesuari buruzko atal espezifiko bat sartu da.

2. DIAGNOSTIKO INTEGRALA ETA ONDORIOAK

Puntu honetan, aztertutako gaietako bakoitzerako aurretiko azterketen dokumentutik ateratako aurretiko ondorioak bildu ditugu, Plan Orokorra idaztera bideratuak. Prozesu horretan sartzan da, halaber, aurrerapen hau.

Dokumentu honek alderdi teknikoak biltzen ditu, eta Leioako herritar eta eragileekiko partaidetza-prozesuko tailerretan lortutako ondorioekin osatu da. Prozesu horren helburua izan da aurrerapena biztanleek eta eragileek beren udalerrinari buruz duten ikuspegiarekin osatzea. Horren haritik, udalerrian dauden kolektibitate eta interesak identifika ditzaketan abantaila eta desabantaila posibleak bildu dira.

Aipatutako partaidetza-prozesuaren emaitza dagozkion ataletan jaso da.

2.1. BESTE PLAN BATZUEKIKO INTERAKZIOA. LURRALDE-PLANGINTZA

LAG

2019ko LAGetan, ingurune fisikoarekin erlazionatutako alderdiez gain, aipatzekoa da hiri-habitataren ikuspegia hiri finkaturantz bideratzen dela eta hiri konplexua sustatzen duela, erabilera askokoa, trinkoa eta sozialki kohesionatua, argi eta garbi hauen alde eginez: hiri-berroneratzea, «hiri-hazkundearen perimetroa» hiri-hedapena mugatzeko, eta lurralde berria okupatu ordez hiri-lurzorua hobeto aprobetxatzen laguntzen duen bizitegi-kuantifikazioa. Aurrekoaren harira, lehentasunezko zat jotzen da dagoen industria-lurzorua garrantziaz ohartaraztea eta hura birgaitzea eta berrerabiltzea, uste baita jarduera ekonomiko batzuek hiri konplexuak sortzen lagun dezaketela, erabilera askokoak eta kohesionatuak, eta batez ere hurbileko merkataritzak hiri finkatua erabilerak nahasten lagunduko duela.

Lurralde-plan partzialak

1997ko LAGetan ez bezala, 2019an onartutako LAGek ez dute zehaztapan zehatzik ezartzen Leioako udalerrirako, eta alderdi horiek eremu funtzional bakoitzean garatu beharreko Lurralde Plan Partzialetara (LPP) igortzen dute. Leioaren kasuan, haren zehaztapanak Bilbo Metropolitarrako LPPan (LPP-BM) jasota daude. Horren indarreko dokumentuak (apirilaren 8ko 24/2025 Dekretuaren bidez onartua) 2006ko LPP-BMko irizpideetatik nabarmen aldatzen diren irizpideak ditu.

Agian horren adibiderik argiena bizitegi-kuantifikazioaren bilakaera da. Hala, 2006ko LPP-BMn 6.613 etxebizitza berri ezarri ziren, baina LAGen berrazterketaren ondorioz lortutako kuantifikazioa % 50 inguru murriztu zen, 3.625 etxebizitzetaraino. Aurreikuspen hori are gehiago murriztu da LPP-BM berrian, 1.849 etxebizitza berrietaraino.

Etxebizitzaren Kuantifikazioa	gehienekoa
Bilbo Metropolitarraren LPP (2006)	6.613
LAG (2019)	3.625
Bilbo Metropolitarraren LPP (2025)	1.849

LPP-BM berrian egindako beste aldaketa garrantzitsu bat hiri-hazkunderen gehieneko perimetroaren lerroa ezartzearena da. Hau da, 2006ko dokumentuak ez bezala, orain ez dira identifikatzen garapen berriak har ditzaketen lurzoru-poltsa zehatzak, baizik eta gehieneko lerro bat ezartzen da, eta, haren barruan, udal-plangintzak justifikatu beharko du lurzoru berriak kolonizatze proposamenen egokitasuna. Hori guztia kontuan izanda lehentasuna beti izan behar dela degradatutako eta zaharkitutako espazioak berroneratzea, landa-lurzorua artifizial bihurtu gabe.

Ingurune fisiko antolatze kategoriarako ezarritako erabilera-erregimena mugatzen edo baldintzatzen duten gainjarritako baldintzen barruan, Artatza parkea nabarmentzen da, Bilbo Metropolitarraren LPPea aisialdirako alde gisa zehaztua. Gainera, udalerrian alde higagarriak eta akuiferoen babes-eremuak daude. Bi igarobide ekologiko identifikatzen dira (C.E.02 Bolue – Unbe eta C.E.E.02.02 UPV/EHU - Astrabuduako ibarreko hezegunea), HAPOren berrikuspenean kontuan hartzeko, baita C.U.S.01 Bilboko itsasadarreko udalaz gaindiko hiri-igarobidea ere.

Mugikortasunari dagokionez, UPV/EHUko Campusera ibilgailu pribatua ez beste bitarteko batzuen bidez iristeko modua hobetzea proposatzen da, hiri-habitataren eta mugikortasunaren eredia hobetzeko, baita Axpe-Udondo eremua berritzeko eta bateragarri egiteko eremu gisa bereiztea ere, lurralde-ereduaren garapenean funtsezko garrantzia izan dezaketen espazio esanguratsu batzuk bereizteko asmoz. Halaber, plataforma eskusiboko garraio kolektiboa ezarrita mugikortasun multimodala sustatzeko proposamenak egiten dira.

Berrikuspen-fasean dagoen Bizkaiko Errepideen LPSean jasotakoaren harira, errepideen foru-sarearen gaur egungo egitura indartu nahi da tarte hauetan: Bolue-Leioako UPV/EHUko Campusa, Leioako UPV/EHUko Campusa-Akarlanda-Zabalotxe eta Leioako UPV/EHUko Campusa-Avanzada-Astrabudua-Axpe ardatza.

Trenbide-sareari dagokionez, LAGetan ezarritakoaren ildotik, eta mugikortasunari buruz esan den bezala, trenbide moduak funtsezko zat jotzen dira mugikortasun jasangarriagorantz aurrera egiteko ahaleginean. Gaur egun, Metro Bilbaoren L1 lineak estaltzen du, eta erabilera-maila handiak ditu, nahiz eta Leioako UPV/EHUko Campusera iristeko (Leioaren goialdean kokatua, Sarrienan), batez ere ibilgailu pribatua erabiltzen da, edo, bestela, autobusa. BMLPP berrian ez da ezer esaten Urbinaga-UPV/EHUko Campusa tranbiari dagokionez.

Mugikortasun ez-motordunari dagokionez, helburua da hiri-eremuak elkarren artean lotzea, garraio kolektiboaren bidez, modu ez-motordunak erabilia, edo, bestela, intermodalitatera jota etxera, lan ordaindura, zainketetara eta aisiara joateko, baita landagunera eta landa-ingurunera ere.

Gainera, LAGetan jasotakoari jarraikiz, Leioako lurzoruak daude eremu estrategikoetan; esate baterako, Bilboko itsasadarraren ardatza, azken urteotan eremu metropolitarrak izandako hiri-eraldaketaren elementu gidari gisa, eta Txorierriko berrikuntza-ardatza, aireportua, Leioako UPV/EHUko Campusa eta Zamudioko Parke Teknologikoa integratuko dituen eraldaketa-ardatz berri gisa.

Lurralde-plan sektorialak

Kostaldea Babesteko eta Antolatze LPSak ez du zehaztapen zehatzik jasotzen Leioako udal-mugarterako, eta ez du inolako kategorizaziorik egiten haren antolamendu-eremuan, lurzoruak hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta daudelako. Onartuta daude itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren mugaketak eta haien babes-eremuak, bai Ibaizabaleko itsasadarrari bai Gobelako eta Udondokoei dagokienez. Azkenik, esan behar da 2021ean LPPa berrikusteko prozesua hasi zen, klima-aldaketara egokitzeko.

Gainera, Kostaldee buruzko Legearen 28. artikuluan honako hau adierazten da itsasora sartzeko zortasunari dagokionez:

"Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera publikoa ziurtatzeko, itsasertzeko lurralde- eta hirigintza-antolamenduko planek eta arauak itsasorako sarbide edo aparkaleku nabikoak aurreikusten dituzte, itsas-lehorreko jabari publikotik kanpo, babes berezikiotzat kalifikatutako espazioetan izan ezik. Ondorio horietarako, hiriguneetan eta hirigune urbanizagarrietan, ibilgailuen trafikokoak elkarrengandik gehienez 500 metrotara egon beharko dira bereizita, eta

oinetzkoenak, berriz, 200 metrora. Sarbide guztiak seinaleztatuta eta erabilera publikorako irekita egongo dira amaitutakoan."

EAEko Hezeguneen LPSak kontuan hartu beharreko hiru eremu identifikatzen ditu: Astrabuduako ibarra (II. multzoa), Erandioko eta Leioako udalerriei dagokiena; Lamiakoko ibarra (III. multzoa), bi espazio bereizirekin; eta Lertutzeko urtegia (III. multzoa).

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala LAGetan azaleko urei buruz bildutako irizpideak garatu eta xehatzeko helburua betetzeko aplikatu beharko da. Horretarako, aipatzen dituen hiru aldagai hartu beharko dira kontuan (ingurumenekoa, hidraulikoa eta hirigintzako), baita haietako bakoitzaren arabera aplikatu beharreko mugak ere. Halaber, kontuan izan behar da Udondon, Errekalden eta Lertutxen uholde-eremu gisa identifikatutako eremuak daudela.

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSari dagokionez, beste mota bateko erabileren aurrean nekazaritza eta basozaintzako sektorearen interesak babesteko aplikatu beharko da, baita nekazaritza eta basozaintzako erabileren plangintza eta kudeaketa bideratzeko ere. Balio estrategiko handiaren, trantsiziozko landa-paisaiaren eta basoaren kategoriak dira ugariak udalerrian.

EAE n Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritzako Ekipamenduetarako Lurzorua Sortzeko LPSaren barruan, nabarmentzekoa da Leioako udalerraren egoera, jarduera ekonomikoetarako lurzorura bideratutako hektarea-kopurua udalerririk mugakideetako baino askoz ere handiagoa baita eta librearen ia bikoitza baita lurzoru okupatua. Leioan bideratutako lurzorua Plentzia-Leioa korridoreko guztizkoaren bikoitza baino gehiago da.

EAEko Trenbide Sare Berriaren LPSari dagokionez, Urbinagatik (Sestao) UPV/EHUko Campusera (Leioa) aurreikusitako tranbia-linearen etorkizuna argitu behar da. Izan ere, nahiz eta gaur egun trenbide-azpiegitura horren kotxe-tokiak eraikita egon, Bilbo Metropolitarraren LPParen dokumentu berriak hura desagerraraztea edo beste bide batzuekin ordeztzea proposatzen du.

Bizkaiko Errepideen LPSari dagokionez, 2021en amaieran hasieran onartu zen II. LPSak gaur egun indarrean dagoen dokumentuaren aurreikuspen nagusiak mantentzen jarraitzen du; besteak beste, Lamiakoko ibaiazpikoa eta iparraldeko saihezbidea (Bolue-Unibertsitatea korridorea), eta Avanzadako errepidetik Unibertsitatera igotzeko errepidea bikoiztea proposatzen du. HAPO berriak foru-azpiegitura horiei dagozkien sistema orokorretarako lurzoruaren erreserbak bildu behar ditu, baita errepideen foru-arauaren arabera aplikagarriak diren mugak ere.

Bizkaiko Bizikleta-bideen LPSa martxoaren 22ko 5/2023 Foru Arauaren bidez onartu da behin betiko, eta zehaztapen lotesleak ditu lurraldean eragina duten bizikleta-bideen diseinuari dagokionez (Leioaren kasuan, itsasadarraren ardatzean jasotakoa), baita udalerrietako bidegorrien sarearekiko konexioei dagokienez ere. Kontuan hartu beharko dira zehaztapen eta trazadura horiek.

Azkenik, nabarmentzekoa da, diagnostikoaren dokumentuan jasotako informazioari dagokionez, bi LPS berri izapidetzen hasi direla:

- Energia berriztagarria, hasieran 2023ko apirilean onartu zena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen xedapen gehigarrietako laugarrena betez idatzi dena. Hortaz, haren xede nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasun energetikora iristea ahalbidetuko duen oinarrizko tresna bihurtzea.

Leioa ez dago energia berriztagarria sortzeko instalazio berriak ezartzeko hautatutako kokapen-zonen eraginpeko udalerrien zerrendan. Hala ere, 15. artikuluan egindako zonakatzearen, 11. eta 12. artikuluetako erregulazioaren eta Araudiaren I. eranskinetako erabilera-matrizearen bidez, energia berriztagarrien erabilera sartu da eskumen eta eskalaren arabera lurralde- eta hirigintza-plangintzak definitzen dituzten antolamendu-kategorietan, egoki, onargarri edo debekatu gisa, kasuan kasu zer dagokion.

- Baliabide turistikoena, oraingoz lanei ekiteko erabakia hartuta daukana.

2.2. UDAL-PLANGINTZA

Gaur egun indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 1999an onartu zen, nahiz eta haren hirigintzako araudia ez zen 2001 eta 2002ra arte argitaratu. Orain arte, antolamendu estrukturalaren 32 aldaketa izapidetu eta onartu dira guztira, baita haietako alde eta sektore ugarien antolamendu xehatua ere.

Indarreko dokumentuaren helburu nagusietako bat Leioako auzoak lotzea/kohesionatzea zen, auzo horien artean zeuden hutsuneetan hirigintzako garapen berriak eginda. Haiei esker, hiri-sare etengabea sortu da; zuzkidura berriak ditu (bideak, berdeguneak eta espazio libreak), baita etxebizitzaren garapen handia ere, nola babestuena hala libreena. Horren guztiaren ondorio gisa, gaur egun udal-mugarateko lurzorua erdia baino zertxobait gehiago hiri-lurzoru gisa sailkatuta dago, eta lurzoru urbanizazina ez da lurzoru guztiaren % 40ra iristen.

Gaur egun, 3564 etxebizitza (1913 libreak eta 1.651 babesekoak) eraikitzeke lizentziak eman dira, eta emateke daude 1410 etxebizitza (698 libreak eta 712 babesekoak) eraikitzeke lizentziak. Horrela, indarreko plangintzako aurreikuspenak beteko balira, Leioak gutxi gorabehera 15.392 etxebizitza izango lituzke, azken 20 urteotan hazkundera nolabait konstantea izan baita.

Industria-lurzoruari dagokionez, garatzeke daude DOW Chemical-en instalazio zaharrei lotutako lurzoru-poltsa handiak, baita Avanzadako errepidearen iparraldean kokatuta dagoen eta San Mami eta Saltuena sektoreei dagozkien erabilera mistoko (hirugarren sektorea eta industrial) poltsa handiak. Hori guztia Lamiakoko dartsenaren inguruko beste lurzoru-poltsa batzuek gain; baloratu egin beharko da aukerako espazio hau ingurumenaldetik etorkizunean berreskuratze aldera jarraitzea egokia den ala ez.

Azpiegituri dagokienez, lurralde-plangintzako dokumentuetan jasotakoez eta aurreko atalean aipatu direnez gain, egokia da aipatzea eskuinaldean Lamiakon hondakin-uren araztegia jartzeko lurzoru-erreserbaren etorkizuna zehazteko beharra. Plan Hidrologiko Nasionalean interesekotzat jotako azpiegitura bat da, eta hura desagertzea ala ez dartsena ingurumenaren aldetik berreskuratzea baldintzatuko du.

2.3. INGURUMEN-DIAGNOSTIKOA

Ikuspegi zehatzagoa eman nahi da Leioako lurzorian banatutako eremuei buruz, ingurumen-irizpideak harturik oinarri. Ingurumen-balio eta -baldintza guztiak identifikatu nahi dira, udalerriko lurraldea unitatetan homogeneizatzeko eta, hala, udalerraren egoera zein den jakin eta erreferentziazko informazioa sortu ahal izateko. Hartara, plangintza berriaren garapena planteatu ahal izango da, eta lehen faseetatik saihestu ahal izango dira ingurumenarekin zerikusia duten gatazkak.

Horrekin guztiarekin, Leioako udalerrian zehaztu diren unitate homogeneoak zerrendatu eta deskribatuko dira:

2.3.1. NEKAZARITZAKO UNITATEA, BATEZ ERE BELARDI ETA LABORE ATLANTIKOENA

Aspalditik doa murriztuz Leioan nekazaritzako jarduera. Landa-auzo txikiak sakabanatuta dauzkaten belardiak, laboreak eta larreak izan ohi ziren nagusi Leioan, baina, gaur egun, jarduera bertan behera utzi denez, unitate hau gutxitan ikusten da, eta, askotan, mantendu dena oso degradatuta dago.

Hori gorabehera, udalerriko bigarren unitate handiena da, garapenak hartzen dituen lurraldearen oso atzetik, baina basokoaren aurretik.

Unitatearen barruan, belardiak dira nagusi, eta labore-eremuekin txandakatzen dira. Askotan fruta-arbolak daude eremu horietan, berotegi batzuekin. Hein txikiagoan, larreak daude. Ganadua ia erabat desagertu da udalerrian, baina oraindik ikus daiteke bazkatzen Santsoenan eta Perurin.

Unitate horren adibide onena Avanzadako errepidearen (BI-637) iparraldean dago. Bizitegi-garapenek eta, hein txikiagoan, jarduera ekonomikoetara bideratutakoek ez dute uzten unitate horrek jarraitzea, eta belardi eta laboreak bizitegiarako eremuekin txandakatzen dira. Adibidez, nolabait landa-izaerari eusten dion Santimami auzoan, ekoizpenerako zenbait instalazio daude baselizaren ondoan (auto-kontzesionarioak, autobusen aparkalekuak, etab.).

Kalitate handieneko belardiak Elexalde errekaostoen inguruan daude, unibertsitatera igotzeko BI-2731 errepedearen ekialdean eta hegoaldean; unibertsitateraino iristen dira, eta Santsoena auzoa hartzen dute barnean. Peruriren inguruan eta Artea merkataritza-gunearen hegoaldean, belardi batzuk daude.

Santimami auzoaren iparraldean kokatutako belardietan (batzuetan Perurin eta, hein txikiagoan, Santsoenan), argi eta garbi ikusten da nekazaritzako jarduera bertan behera utzi dela eta, kasu horietan, lurra oso degradatuta daude; sasitzak eta iralekuak dira nagusi, baina, batez ere, espezie exotiko inbaditzaileak, hala nola kanabera (*Arundo donax*) eta panpa-belarra (*Cortaderia selloana*).

Belardi horietako asko Batasunaren intereseko habitat gisa inbentariatu dira (6510, sega-belardi atlantikoak). Hala ere, egia da habitat hori partzialki desagertu dela Leioako udalerritik, eta, askotan, eremu horiek bizitegi-garapenek hartu dituzte.

Nahiz eta unitate hori giza ekintzaren ondorioz osatzen den, kontua da biztanleriak duen pertzepzioa oso positiboa dela, eta ingurune naturaltzat hartzen duela, paisaia erakargarriak eta oso baloratuak sortzen dituelako. Gainera, askotariko fauna-espezieentzako elikadura- eta atsedenguneak osa ditzaketen ekosistemak dira, batez ere mosaikoak osatzen dituztenean, heskai eta zuhaitzietan.

Horrenbestez, balio natural ertaineko unitate bat da, baina oso paisaia baloratua berresten du.

Eremu irekiak direnez eta haietan ez dagoenez fruta-arbolak ez diren beste zuhaitzik, jarduerak nekez integra daitezke. Bizi-sistema berriek arriskuan jarri dute (eta arriskuan jartzen jarraitzen dute) haien kontserbazioa, eta, hori dela eta, oso urrakorrak dira.

Horrenbestez, balio ertaineko unitate bat da, urrakortasun handikoa eta, EAEn ezarrita dauden garapen-argibideei jarraikiz, zaindu beharrekoa. Horregatik, haren urrakortasuna oso handia da.

2.3.2. HEZEGUNEEN UNITATEA

Leioako udalerrriak EAEko hezeguneen inbentarioan jasotako hiru eremu ditu. Lamiakoko ibarra, Lertutxeko urtegia eta Astrabuduako ibarra dira. Azken hori bakarrik ageri da Hezeguneen LPSean zonakatuta, II. multzoari baitagokio; aldiz, beste biak III. multzoan daude, eta ez daude zonakatuta. Guztiak artifizialak dira. Giza jarduerak eta beharrek halako sistemen sorrera dakarte. Nahiz eta ez dauden ingurumen-egoera onenean, garrantzi handiko ahalmen naturala duten ekosistemak sortzen dituzte. Hori dela eta, Leioako udalerriko interes handiko ingurune elementuak dira.

Astrabuduako ibarraren kasuan, azalera txiki bat baino ez dago Leioako udalerrian; gainerakoa kanpoan dago, Erandioko udalerraren barruan, eta, zati leioarra hiri-eremutzat jotzen da.

Lertutxeko urtegiaren kasuan, Unibertsitateari itsatsita dago, Arboretumaren ondoan, eta ur-xaflaren ondoko zuhaitziak kalitate-ingurune bat sortzen du, bai ingurumenaren ikuspegitik, bai dibertimendurako erakargarri gisa.

Lamiakoko ibarraren kasuan, udalerraren hegoaldean dago, itsasadarretik gertu, eta Getxoko udalerrarekiko mugatik hurbil. Lamiakoko ibarrak bi eremu oso desberdin ditu: ezkerrekoa, instalazio industrialek hartutakoa; eta eskuinekoa, Lamiakoko dartsena izeneko, 1860 ingurura arte hezegune izandakoa. Gero, lehortu egin zen eta, gaur egun, nahiko degradatuta dago, nahiz eta eremu batzuetan oraindik intereseko landaredia duen, baita hegazti-faunako espezie batzuk ere (migrazio-aldian habitat hau erabiltzen dute).

Bere garaian, Udalak paisaiaren ekintza-plan bat jarri zuen martxan dartsenan, eta, beste zenbait ondorioren artean, hezegunea berreskuratzeko zenbait jarduketa ezarri zituen. Ahalmen ekologikoaz gain balio kulturalako elementuak ere badituenez, berezitasun handiko ingurune bat da. Gaur egun, egoera txarrean dago oro har, flora exotiko inbaditzaileko espezieek kolonizatu baitute (bereziki *Cortaderia selloana*), eta degradatuta dago, eta, hura berreskuratuz gero, sortuko litzatekeen ekosistemak askotariko balioak izango litzateke, guztiak interes handikoak.

Eremu horiek balio ekologiko handikotzat jotzen dira, nahiz eta oro har egoera onenean ez egon. Oso urrakorrak dira, maiz esku hartu delako haietan, eta, berreskuratuko balira, oso ingurune erakargarriak sortuko lirateke.

Eremu horiek zaindu eta leheneratu egin beharko lirateke. Dagozkion erabilera-mugak ezarriz gero, aisialdirako ahalmen garrantzitsuko inguruneak izatera irits litezke.

2.3.3. IBAI ETA ERREKASTOEN UNITATEA

Leioako udalerrian, tamaina askotako ibilgu ugari daude. Udalerria zeharkatzen duen ibilgu nagusia Gobela ibaia da, eta haren ibaiadar nagusia Udondo ibaia da (ezkerretik datorren ibaiadarra), Elexalde eta Mendibile errekaetok bertara isurtzen dituzte urak.

Halaber, udalerraren iparraldean buruko errekaak daude, eta Gobelaren ibaiadarra den Larrañazubi ibaira isurtzen dituzte urak, Getxoko udalerrian.

Oro har, ibilguen egoera ez da onena, eta askoren ibilgua aldatu egin da. Elexalde lur azpitik doa partzialki. Ia ez dute ibaiertzeko landaredirik, eta, dagoenetan, ez dago egoera onenean.

Halako unitate asko daude Leioan, baina ez dago egoera onenean. Kalitate ertaina-txikia izan arren, balio handiko ekosistemak dira, eta halakotzat tratatu behar dira, haiek zaintzea eta berreskuratzea sustatuz. Elementu urrakorrak dira, eta hainbat jarduketaren ondoriozko aldaketen oso menpe daude.

2.3.4. BASO-BERRITZEEN UNITATEA

Udalerrian baso-masa gutxi daude, nola sailak hala baso naturalak. Nagusiki eukalipto landatu da, baina zenbait tokitan radiata pinuaren sailak ere badaude. Batez ere udalerraren iparraldean daude, Getxorekiko mugan, eta zerrenda bertikaletan agertzen dira, sasitzarekin eta hostozabal-baso gazteen orbanekin txandakatuta, nagusiki Kurkudiko eremuan.

Unitate ia anekdotikoa da Leioan, orban txikiak baitaude, eta haren balioa oro har baxua da, baso monoespezifikoa osatzen duelako eta haren kudeaketak zaildu egiten duelako espezieetan aberatsa den eta, beraz, biodibertsitate txikikoa den oihanpea osatzea. Paisaiaren ikuspegitik, estetika erakargarria ere ez dute, arrazo beragatik: paisaia oso homogeneoa da.

Kalitate ertaineko eta urrakortasun txikiko unitate bat da, aldizka mozten diren basoak baitira.

2.3.5. SASTRAKA-UNITATEA

Unitate honetan, txilardia, sasitza eta iralekua daude, Leioako sastraka-unitateko espezie arruntenak. Txilardia (nagusiki *Ulex* espeziea) iparraldean dago batez ere, Kurkudiko eremuan, eta eukalipto-sailekin, hostozabal-baso gazteekin eta, tarteka, belardiren batekin txandakatzen da. Sasiak eta iratzeak dituen sasitza baino dezente txikiagoa da. Haren ingurumen-kalitatea ere bestena baino handiagoa da, naturala delako. Txilardi hori Batasunaren intereseko habitat gisa inbentariatu da (4030).

Sasitza/Iralekua dituen sastraka askoz ere zabalagoa da. Utzita dauden eremu horietan guztietan ugaria da, bereziki Leioan, belardi utzietan agertzen da, espezie inbaditzaileekin batera, hala nola panpa-lezka eta kanabera (*Arundo donax*). Egoera hori Laubideren iparraldean, Santimami inguruan eta Peruriko eremu batzuetan ikus daiteke argi eta garbi.

Utzitako eta degradatutako eremuetan ugaria den sasitza hori kalitate eta urrakortasun baxukoa da. Sasitza hori erraz zabaltzen da, edozein lugorritan edo jarduera etenda daukatenetan barrena.

2.3.6. HOSTOZABAL-BASO NATURALEN UNITATEA

Halako gutxi daude Leioan, eta, oro har, azalera txikiko zuhaitzi txikiak osatzen dituzte.

Nagusiki hariztiak dira, baita baso misto gazteak ere (askotan, *Salix sp.* sahastiak soilik dituzte). Askotan, belardiekin txandakatzen dira, baina azalera handiagoa hartzen dute Kurkudiko eremuan, eta sasitzaz eta baso-sailez inguratutako zuhaitzi txikiak osatzen dituzte. Baso gazteak dira, degradatu samarrak, gutxi garatuak eta jarraitutasunikgabeak. Gauza bera gertatzen da Lertutxe eta Santimami artean kokatutako zuhaitzi txikiekin.

Pinosolo parkean, itxura hobea dute, eta hobeto zainduta daude. Parkea den arren, kalitate hobeto baso bat du.

Balio natural eta urrakortasun handiko halako unitate gutxi daude Leioan, eta daudenak ez daude egoera onenean. Hori dela eta, unitate honen egoera hobetzen saiatu behar litzateke, hari jarraitutasuna emanez eta egoera indartuz.

2.3.7. HIRI-UNITATEA

Udalerrian gehienetan topatzen den eta azalera handiena hartzen duen unitatea da. Urteen poderioz, bizitegi-garapenak areagotuz joan dira, eta, gaur egun, Leioaren azaleraren zati handi bat hartzen dute. Etxebizitzaren eraikinak askotariko tipologiakoak dira, auzoaren arabera; batzuetan, eraikinak zaharrak dira, eta beste batzuetan, modernoak; batzuetan, lorategi-zona gehiago daude, eta beste batzuetan, berriz, gutxiago.

Oro har, parkez eta lorategiz inguratutako eremuak dira; batez ere Artatza eta Pinosolo parkeak.

Unitate honetan sartzen dira udalerriko errepide nagusiak. Avanzada (BI-637) errepidea nabarmentzen da. Udallerria mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du, eta herria bitan banatzen du. Hala ere, beste errepide asko ere badaude: BI-647, BI-2731, BI-628, etab.

Horrez gain, ekipamendu ugari ere baditu, baina hezkuntzakoak nabarmentzen dira, ikastetxe ugari baitaude (batez ere Euskal Herriko Unibertsitatea).

Kalitate eta urrakortasun txikiak ditu.

2.3.8. MERKATARITZA- ETA INDUSTRIA-UNITATEA

Udondon eta Lamiakon daude Leioako industria-kokagune nagusiak, baina badira unitate honetan sartzen diren beste eremu batzuk; esaterako, Santimami auzoan kokatutakoa.

Hor sartzen dira auto-kontzesionario eta gasolindegia guztiak (nagusiki, Avanzadan kokatuak), baita merkataritzagune handiak ere (hala nola Artea eta Eroski, Erandiorekiko mugatik hurbil kokatua).

Kalitate eta urrakortasun txikiko unitate bat da.

Ahal izanez gero, bi unitate horietan ardaztu behar lirateke etorkizuneko garapenak: degradatuen dauden auzoak edo industria utzita daukaten eremuak berreskuratu behar lirateke, dentsifikazio koherentea proposatu behar litzateke, erabilerak nahasi behar lirateke (inguruneak horretarako aukera ematen duenean), eta, kasu guztietan, esku-hartzeren bat izan duten eremuen inguruan hazi behar da (bi eremuen inguruan hazten saiatuta eta bi unitateetan integratutakoa ez beste lurzoru bat ez hartzen ahaleginduta).

Normalean, deskribatutako azken bi unitateetako inguruneek baldintza eta muga batzuk izaten dituzte, arrisku naturalen eta bestelakoen ondoriozkoak. Hona hemen unitate horietatik Leioan esanguratsuenak direnak:

- Zarata. Zarata-fokuetan kokatzen diren garapen guztiek (esaterako, errepideak) kontuan izan beharko dute lehenengo faseetatik, eta kalitate akustikoko helburuak gainditu ahal izango liratekeen ezarri.
- Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruak. Leioak halako lurzoru ugari ditu, eta inventarioan jasota daude. Gehienetan, dagoen industriari edo garai batean egon zenari lotuta daude. Lurzoruen erabilera aldatzea dakarren ekintza orok lurzoruaren kalitatearen izepideari hasiera emango lioke.
- Uholde-arriskua. Aldiaren arabera, uholdeengatik mugak aldatu egiten dira, baina, oro har, garapen berriak mugatzen dituzte.

2.4. GIZARTEA

Leioako biztanleria % 16,84 hazi da azken 20 urteetan. Biztanleriaren piramideak biztanleen zahartzerako joera garbia erakusten du, eskualdean, lurralde historikoan eta Autonomia Erkidegoan gertatzen den bezala. Oro har, biztanleria ondo hezita dago, eta azterketa-eremuetakoa baino batez besteko errenta handiagoa du. Hala ere, genero-arrakala dago bi alderdietan: bai hezkuntzan, emakumeen alde, bai ekonomikoan, gizonen alde.

2001 eta 2021 artean Leioako urteko edo urte arteko hazkunde konposatuaren tasa % 0,74koa dela kontuan hartuta, aurreikuspenen arabera, 2030an 34.384 biztanle izango ditu, 2040an 37.014 biztanle, eta 2050ean 39.845 biztanle. Biztanleria hazi egingo dela kalkulatu da.

Leioan, eskualdeko batezbestekoa baino txikiagoa da langabezia-tasa, eta errenta erabilgarria Bizkaiko, Bilbo Handiko eta EAEko batezbestekoaren gainetik dago. Zerbitzu-sektorea da nagusi (2020an zeuden establezimenduen % 83,79), eta eraikuntza eta industria bigarren mailan geratu dira, eta lehen sektorea ia ez dago.

Egitura hori inguruan dituen eta Bilbo Handia osatzen duten udalerrietakoaren oso antzekoa da, eta Bizkaiarekiko eta Autonomia Erkidegoarekiko proportzioak mantentzen ditu, nahiz eta industria-sektoreak eta lehen sektoreak pisu txikiagoa duten.

Oro har, etxebizitza-parke eraikia zerbitzuz ondo hornituta dago, eta gehienetan igogailua du. Horrez gain, 35 urte ditu batez beste; hau da, etxebizitza-parke gaztea da. Batez besteko etxebizitzak ia 85 m²-ko azalera erabilgarria du, bost gelarekin (logelak, egongela-jangela eta sukaldea), eta jabetza-erregimenean dago, nahiz eta nabarmen egin duen gora alokairu-erregimenaren portzentajeak.

Esan dezakegu Leioa udalerrri erakargarria izan dela, eta hala dela oraindik ere; horren erakusgarri da azken bi hamarkadetan biztanleak bereganatu dituela, eta etxebizitza-kopuruak gora egin duela. Halaber, etxebizitza babestua eskatzen da oraindik ere (2.971 eskatzaile), eta, ondorioz, lau bider etxebizitza babestu gehiago egikarrituko dira indarrean dagoen Plan Orokorraren arabera (713 etxebizitza), eta ezin izango litzaioke aurre egin etxebizitza hutsen parke hipotetikoa mobilizatuta (gehienez 356 etxebizitza).

Halaber, nabarmendu behar da etxebizitza babestuaren edukitza-erregimen eskatuena alokairukoa da (% 62,10), eta gutxiago jabetzakoa (% 37,90).

2.5. EKIPAMENDUAK

Oro har, ekipamenduak batez ere Elexalde inguruan daude, eta Zuhatzu, Peruri, Sarriena, Santsoena, Bolunburu, Lertutxe eta Santimami auzo perimetralek eta Iparragirre zeharbideak ia ez dute zerbitzurik 500 m-ra baino gutxiagora.

Jarraibide orokor hori hezkuntza-ekipamenduekin soilik ez da betetzen, oso ugariak baitira eta modu homogean banatuta baitaude udal-mugarte osoan. Izan ere, bizitegi-eraikinen % 1 baino gutxiago dago ikastetxe batetik 500 m-ra baino gehiagora.

Halaber, kirol-ekipamendu asko Elexaldetik kanpo daude, kirol-pistetarako azalera handiak behar direlako, eta, kiroldegia Sakonetatik Torresolora eramanez gero, baliteke Pinosolo-Sarriena kirol-polarizazioa sortzea.

Nabarmentzekoa da etxebizitzaren % 25 baino gehiago osasun-zentro edo gizarte-ongizateko zentro batetik 500 m-ra baino gehiagora daudela.

EKIPAMENDUAK ETA DAGOZKIEN ETXEBIZITZAK														
	Administrazioa		Gizarte-ongizatea		Kultura		Kirola		Hezkuntza		Erlijioa		Osasuna	
ekipamendu tipoen kopuru osoa	11		13		13		12		34		7		4	
ekipamendu tipoen kop. maximoa (d<500 m)	8		8		7		6		13		4		2	
ekip. tiporik gabeko etxebiz. (d<500 m)	2.724	% 18,00	4.194	% 27,72	2.030	% 13,42	2.227	% 14,72	509	% 3,36	3.323	% 21,96	5.884	% 38,88
ekip. tipoen kop. maximoa duten etxebiz. (d<500 m)	2.337	15,44	56	% 0,37	22	% 0,15	208	1,37	247	% 1,63	39	% 0,26	1.937	% 12,80
Etx. kop. guztira Leioa	15.132													

2.6. ESPAZIO LIBREAK ETA BERDEGUNEAK

Nabarmentzekoa da Leioako etxebizitza gehienek indarreko Plan Orokorrean espazio libre eta berdegune gisa kalifikatuta dauden plaza, parke, lorategi eta aisialdi-eremuak dituztela (espazio libreen sistema orokorrak eta tokiko sistema libreak elkartuta) 500 m-tik beherako erradioan. Udalerri osoko 51 etxebizitza soilik daude 500 m-ko afektazio-eremutik kanpo, espazio libreak eta sistema orokorrak kontuan hartuz gero; haiek Santimami eta Santsoena auzoetan daude, guztiak landagunean. Errealitatea oso desberdina da txakurguneei dagokienez, haiek kontzentratuago baitaude eta etxebizitza gehiago baitaude 500 m-ko afektazio-erradiotik kanpo.

Etxebizitzak eta sistema orokorren eta tokikoen sareko espazio libre eta berdegune gisa kalifikatutako azalera lotzen baditugu, batez beste 50,65 m² daude etxebizitzako, edo 23,9 m² biztanleko; ratio hori OMEk gomendatzen duena (10/15 m² biztanleko) baino askoz ere handiagoa da.

Hala ere, desoreka handia dago espazio libreen eta berdeguneen azalera-zuzkidurari dagokionez Ondizeko muinoaren iparraldean eta hegoaldean kokatutako auzoen artean. Nabarmentzekoa da, halaber, aldea dagoela berdeguneak hiri-sarean integratzearen eta berdeguneen eta dentsitate eraikiaren arteko erlazioaren artean. Horrela, espazio libre eta berdegune gutxi ikusten dira Lamiako-Txopoeta aldean, baita hirigunean ere (Kandela Zubieta eta Udondo).

Halaber, nabarmentzekoa da, planoan (bi dimentsiotan irudikatua) Pinueta auzoak Leioako parke handietako bat duen arren (Artatza parkea), orografiaren eta konexio-faltaren ondorioz ez dela hautematen parke propio gisa.

2.7. ZERBITZU-AZPIEGITURAK ETA -SAREAK

Zerbitzu-sareen barruan, esan liteke estalita daudela ia behar guztiak, bai zerbitzu-sare propioenak oro har, bai etxebizitzetarako sarbideei dagozkienak. Gabeziak dituen atal bakarra telekomunikazio-sarea da, ez baita landaguneko auzoetara iristen.

Gauza bera gertatzen da behe-presioko gas-sarearekin, ez baititu hornitzen ez landaguneko auzoak, ez udalerriko hego-mendebaldeko eremua.

Halaber, beharrezkoa da jakitea zertarako erabiliko den indarreko Plan Orokorra Lamiakoko hondakin-uren araztegia egiteko egiten duen Lamiakoko dartsenako azpiegituraren lurzoru-erreserba, araztegi hori interes orokorreko obra baita indarrean dagoen Plan Hidrologiko Nazionalaren arabera.

2.8. MUGIKORTASUNA

Gaur egun, Leioatik berehala iristen da lurralde-mailako komunikazio-bideetara, bai ibilgailuenak (Avanzada), bai trenbideenak (Metro Bilbao-ren 1. linea). Ondo komunikatuta dago errepidez eta metroz inguruko udalerriekin, nahiz eta metroa batez ere itsasadarretik hurbilen dauden auzoei ematen dien zerbitzua, gainekoei baino. Dena dela, udal-mailan, Avanzada eta metroa oztipoa dira udalerriko barne-mugikortasunerako, nola ibilgailuena hala oinezkoena edo txirrindulariarena.

Udal-mugartean unibertsitatea dagoenez, garraio publikoan joan daiteke UPV/EHUtik Bizkaiko edozein udalerritara, baina, campusa isolatuta dagoenez Leioaren hirigunetik, leioarrek ia ez dute abantaila hori. Bizkaibusen lineak ez bezala, Lejoanbusak Leioako ia auzo guztiak komunikatzen ditu, bereziki jende gehien dituztenak. Hori gorabehera, estaldura txikia dute jende gutxien dutenek (Zuhatzu, Peruri, Santsoena, Lertutxe, Artatza hegoaldea), baita Artatza HLHI - Pinuetak, Betiko Ikastolak eta Gaztelueta ikastetxeak ere.

Leioaren tamaina dela-eta, oinez edo bizikletaz egin daitezke eguneroko eta aisiako jarduerak guztiak. Nabarmentzekoa da Bizibideak ekimena. Haren bidez, ikasleak ikastetxera oinez joatea sustatu nahi da, baita planifikatuta dagoen asmo handiko bidegorri-sarea erabiltzea ere, nahiz eta erabilgarri dauden zatiak lotzea falta den.

Etorkizunean, lurraldeko mugikortasuna eta, ziurrenik, tokiko mugikortasuna nabarmen eraldatuko duten azpiegitura batzuk eraikiko dira: Lamiakoko ibaiatzpikoa eta itsasadarreko bulebarra. Hala ere, berriro aztertu

beharko litzateke ea komeni den ala ez iparraldeko saihasbidea izenekoa egikaritzea, puntako orduetan Avanzadako errepideak duen saturazioa arintzeko asmoz.

Azkenik, nabarmendu behar da ez dagoela zehaztuta Leioan tranbia ezarriko den ala ez:

- UPV/EHUren eta Urbinagan egingo den intermodalaren arteko ibilbide laburrena Leioatik pasatzea eta Gobelaren eta Udondoren bokalean zubi bat eraikitzea da. Aukera hori dago jasota indarreko plangintzan, eta, horretarako, lurzorua erreserbatu da, eta kotxe-tokiak eraiki dira itsasadarraren ondoan.
- Bigarren aukera BMLPpean jasota dago, eta Leioari soilik eragiten dio, Avanzadatik UPV/EHURA daraman errepidea aldatuko litzatekeelako tranbia hartzeko, baina ondorioz gabe utziko lituzke indarreko plangintzaren arabera egindako jarduketak. Halaber, zubi ugari egongo liriteke Galindoren bokalean.

Aipatu behar da hirugarren aukera bat aztergai dagoela: Lamiakoko ibaiatzpikoaren bidez ezartzea itsasadarraren bi ertzak lotzeko intermodalitate. Azpiegitura intermodal horri esker, besteak beste, Metro Bilbao-ren 1. eta 2. lineak lotu ahal izango liriteke, bi linea horiek baitira Ibaizabaleko itsasadarraren ardatzean garraio publikoko mugikortasunaren benetako guneak.

2.9. ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA

Ondare historiko eta kulturalaren katalogoa prestatzeko, bi iturritara jo da: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila eta Leioako Udala.

2.9.1. EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza galdetu ondoren, hark bi zerrenda bidali dizkio Leioako Udalari: bata, arkitektura-ondarearena, eta bestea, arkeologia-ondarearena. Lehenengoari dagokionez, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatzeko proposatutako higiezinak eta Udalaren hirigintza-plangintzaren bidez babestu nahi direnak bereizten dira. Arkeologia-ondareari dagokionez, ustezko zona arkeologikotzat jotakoak eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen bidez babesteko proposatutakoak bereizten dira.

2.9.1.1. ARKITEKTURA-ONDAREA

Arkitektura-ondareari dagokionez, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako txostenak hauek bereizten ditu:

- Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatzeko proposatutako higiezinak. Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean jasotako mekanismoen bidez babes juridikoko proposamena duten elementuak dira.

Oro har, 6/2019 Legearen bidez babesten diren arte, elementu horietan zaharberritze kontserbatzaileko esku-hartzeak soilik egitea gomendatzen da, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketak babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean (“Birgaitzeko esku-hartzeak”) zehaztu bezala.

Ondare horrek kautelazko babes-ingurune bat izan dezan, eraikuntza, instalazio edo hesietatik gutxienez 15 metroko gutxieneko erretiroa uztea gomendatzen da, eta ingurunearen ingurumen-ezaugarriak urardotzen dituzten aldaketak saihestea.

- Tokiko intereseko higiezinak, Udalaren hirigintza-plangintzaren bidez babesteko proposatuak. Tokiko babesa jasotzeko proposatutako elementuak dira, haietan maila horretako balioak hautematen direlako.

Haiek Plan Orokorreko kultura-ondare babestuen katalogoan sartzea gomendatzen da, eta, oro har, babesteko eta esku hartzeko irizpide gisa, haietan egiten diren obrek haien bolumetria, kanpoko itxura eta oinarritzeko banaketa tipologikoa eta estrukturala errespetatzea, egituraren material orokorra mantenduta eta “Sendotzea” edo/eta “Zaintzea eta apaintzea” esku-hartze kategoriak erreferentzia gisa hartuta, ondare

urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean (“Birgaitzeko esku-hartzeak”) zehaztu bezala.

2.9.1.2. ARKEOLOGIA-ONDAREA

Arkeologia-ondareari dagokionez, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako txostenak hauek bereizten ditu:

- Ustezko zona arkeologiko aitortuak. Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 1997ko maiatzaren 21eko Erabakiaren bidez aitortutako zonak dira (EHAA, 113 zk., 1997-06-16koa).

Adierazpen horretan, elementu horiek mugatzeko tipologia alfabetikoak aipatzen dira:

- o Eraikinaren hormez barruko esparrua
- o Eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanpoen dauden ertzetatik neurtuta.
- o Elementuak hartzen duen esparrua + 5 metro inguruan, kanpoen dauden ertzetatik neurtuta.
- o Eraikinak eta berari atxikitako instalakuntzek hartzen duten esparrua.
- o (E) Planoan zehaztutako esparrua.

Adierazpenean jasotakoaren arabera, ustezko zona horietarako eremuan lurrazpiari eragin diezaiokeen obra-proiektu bat egin aurretik, azterketa arkeologiko bat egin behar da, eta kultura-ondarearen arloan eskumenak dituen Bizkaiko Foru Aldundiko organoaren aurrean aurkeztu. Azterlan horretan oinarrituta, foru-organo horrek, dagokion hirigintza-lizentzia eman aurretik, proiektu arkeologikoa egin behar den ala ez zehaztuko du (Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 65. artikulua).

- Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeari jarraikiz babesteko proposatutako interes arkeologikoko zonak.

Babes-espeditenteari hasiera ematen ez zaion bitartean, Plan Orokorrean ustezko zona arkeologikoetarako 6/2019 Legeak aipatzen duen babes-araubidea aplikatzea gomendatzen da (65. art.).

2.9.1.3. LEIOAKO UDALA

Indarreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak kategoria hauetan sailkatzen du babestu beharreko ondarea:

- Babes bereziko eraikinak. Babes berezian sartzen dira zentzu hertsian monumentu gisa sailkatu ezin diren arren bereziki esanguratsuak diren elementuak eta balioak dauzkaten eraikinak, ingurumen-nabarmentasun soilaz gain. Haien garrantzia edo berezitasuna barne-banaketan, elementu komunak eta banaketa bertikalaren antolaketan eta, oro har, arkitektura-obraen ikuskera orokorrean datza.
- Oinarritzko kontserbazio-eraikinak. Oinarritzko kontserbazio-eraikinak dira garrantzi bereziko arkitektura-baliorik eduki ez arren ondare eraikiaren zati interesgarria direnak, tipologia- edo ingurumen-ikuspuntutik elementu esanguratsuak direlako.
- Arkitektura- eta ingurumen-intereseko multzoak. Kategoria honetan sartzen dira beren hiri-morfologiagatik, osaeragatik, berezitasunagatik edo izaera tradizionalagatik babestu beharrekoak diren multzo eraikiak, elementu arkitektonikoak, parkeak edo lorategiak, baita ingurunearen egitura morfologiko nabariagatik hiri-giro jakina sortzen laguntzen duten beste batzuk ere.

Multzo horien tratamenduan, babeseko azpikategoria hauek identifikatzen dira:

- Kontserbazio integraleko multzoak
 - Ingurumen-konserbazio- multzoak
 - Naturagune babestuak
- Interes arkeologikoagatik babestu beharreko guneak

3. HERRITARREN PARTE-HARTZEA

3.1. PROZESUAREN HELBURUAK

Diagnostikoaren lehenengo fasean, hiru helburu nagusi zituen partaidetzak: egungo prestaketa-fasean (aurrerapena) garrantzizkoak diren alderdiak ezagutaraztea, kontrastatzea eta adostea:

- HAPo prestatzen hasiko dela jakinaraztea, eta ahalik eta pertsona gehienei eta askotarikoenei parte hartzera gonbidatzea.
- Planaren eragina izango duten abiapuntuko kontuak kontrastatzea, eta hainbat ikuspuntu integratuz partaidetza eraginkorra eta benetakoa erraztuta.
- Landutako gaien inguruko adostasun-maila adostea eta agerian jartzea, zehazki Leioak dauzkan beharrei eta aukerei dagokienez, eta ikuspegi teknikoa zabaltzea, HAPoaren diagnostikoan lagundu ahal izateko.

Fase honetan, partaidetzaren bidez egin zen diagnostikotik ateratako aurretiazko proposamenak kontrastatzea izan zuen helburu partaidetzak (1. fasea), baita proposamen berriak biltzea ere HAPoaren aurrerapena prestatzean jaso ahal izateko. Aurreko fasean bezala, parte hartu ahal izango zela aurretik jakinaraztea izan zen lan-esparrua, partaidetza informatuaren mesedetan. Hori dela eta, saio publikoetan, lehenengo zatia informatzailea izan zen. Haren aurkezpena HAPoaren webgunean dago eskuragarri, dibulgaziozko material gisa. Fase honetako edukiak errazago ulertzeko eta koherenteak izateko, aurreko faseko bederatzi gaien egitura mantendu zen. Komunikazio-materiala garatu zen saio publikoen berri emateko. Horrela, diagnostikoaren fasean herritarren ekarpenak bildu ondoren, alderdi zehatzagoak eta ukigarriagoak lantzen dira aurrerapenean.

3.2. OHAR METODOLOGIKOA

3.2.1. 1. FASEA. DOIKUNTZA METODOLOGIKOA ETA PROZESUAREN AURKEZPENA

- Partaidetza-prozesuaren helburuak

Aurrerapena prestatzeko fase honetan, helburu hau du partaidetzak:

Leioarrekin lantzea partaide izan dituen diagnostikoaren emaitzetatik ateratako proposamen eta aukera posibleak. Aurretiko proposamen batzuetan oinarrituta, zer eta non kontrastatzea eta zehaztea, eta, hala badagokio, berriak gehitzea.

- Partaidetza-metodologia

Helburua erdiesteko, ondoz ondoko hiru etapa ditu metodologiak: lehenengoa, prestatzekoa; bigarrena, informatzekoa eta parte hartzekoa; eta hirugarrena, ebaluatzekoa.

- Lehenengo etapa, prestatzekoa, 2022ko apiriletik maiatzera gauzatzen zen, eta, etapa hartan, proposatutako hiru informazio-/partaidetza-saioetarako edukiak eta materialak landu ziren: saioetarako aurkezpen informatiboa eta panelak. Aurreko prozesuaren ardatz izan ziren gai ei eutsi zitzairen, eta komunikazio- eta partaidetza-material berri guztia prestatu zen.
- Bigarren etapa, informatzekoa eta parte hartzekoa, 2022ko ekainean gauzatu zen, eta, etapa hartan, hiru informazio-/partaidetza-saio egin ziren, hain zuzen ere Kultur Leioan, Lamiakon eta San Bartolomen, ekainaren 20an, 21ean eta 22an, hurrenez hurren. Saioetara joateko, izena emateko aukera eman zen, telefonoz edo webgunearen bidez (<https://leioazabalik.leioa.net/hapo>).

Hau izan zen dibulgaziozko materiala: informazio-aurkezpena (saio publikoetarako; HAPoaren webgunean dago eskuragarri), HAPoaren webguneko edukien eguneratzea, prentsa-oharrak eta kartelak.

- Azkenik, hirugarren etapa, ebaluatzekoa, 2022ko uztailean gauzatu zen, eta, etapa hartan, bildutako ekarpenak laburbildu ziren, eta txosten hau idatzi zen. Haren emaitzek, adostasun handiagoa izanik, HAPOn aurrerapena prestatzeko fase honetan laguntzea espero da.

3.2.2. 2. FASEA. PROZESUKO PARTE-HARTZAILEAK IDENTIFIKATZEA ETA HAIEKIN HARREMANETAN JARTZEA

• Eragile parte-hartzaileak

Leioako herritar guztientzat egon zen zabalik partaidetza-prozesua. Hiru informazio-/partaidetza-saioen bidez, eragile-talde hauen ekarpenak bildu zituen prozesuak:

- Leioako herritarrak
- Tokiko elkarteak
- Leioara bisitan datozenak
- Udal-ordezkariak

• Parte hartzeko kanala

Fase honetan, aurrez aurre parte hartu zen, herritar guztientzat zabalik egon ziren hiru saio publikoren bidez. Ahalik eta jende gehienak eta askotarikoenak parte har zezan, udalerriko hiru tokitan egin ziren saioak: Kultur Leioa, Lamiako eta San Bartolome.

3.3. EKARPENAK BILTZEA

• Partaidetza-saioak

- Kultur Leioako partaidetza-saioa, batzar-aretoa, ekainaren 20a.
- Lamiakoko partaidetza-saioa, ikastetxe publikoa, ekainaren 21a.
- San Bartolomeko partaidetza-saioa, ikastetxe publikoa, ekainaren 22a.

• Komunikazioa eta dibulgaziozko materiala

HAPOn garapenaren berri ematea eta saio publikoetan parte hartzera animatzea izan zuen helburu komunikazioak.

Taula honetan dago dibulgaziozko materiala. Partaidetza-prozesu honetan erabilitako komunikazio-material guztia elebiduna izan zen, eta hizkuntza ez-sexistaren erabilera egokia bermatu zen, indarrean diren xedapen eta arauen arabera.

Dibulgaziozko materiala

HAPOn logotipoa. Bera HAPOn fase guztietako partaidetza-prozesu osorako. Erraz bereizteko modukoa.

Ikonoak: aurreko fasekoak, bana gaiko eta partaidetza-kanaleko. Erraz bereizteko modukoak, bakoitza bere kolorearekin.

Prentsa-oharrak, hilerro HAPOn fase honetan (Leioako aldizkaria), eta osagarri batekin partaidetza-saioen aurreko astean.

Tokiko prentsa: Leioako aldizkaria, *El Correo, Deia*.

Udal-webgunea eta sare sozialak (FB, Twitter, Instagram eta YouTube).

Informazio-kartelak (2), prozesuari buruzko informazioarekin, baita datekin eta partaidetza-kanalekin ere.

Informazio-hitzaldia eta aurkezpena, prozesuari buruzko informazioarekin, gaiekin, aurreko faseko emaitzekin eta HAPOn aurrerapen-fasea prestatzeko eduki garrantzitsuak.

Prozesuaren memoria, hasieran laburpen batekin.

- Partaidetza-adierazleak

Parte-hartzaileak

13 pertsonak parte hartu zuten. Guztiak partaidetza-saio publikoetan izan ziren.

Parte-hartzaileak generoaren arabera

Orekatua izan zen partaidetza generoari dagokionez, nahiz eta emakume gehixeago izan ziren (% 54).

Parte-hartzaileak adinaren arabera

Parte-hartzaile guztiak helduak dira, 30 eta 64 urte bitartekoak, eta gehienak (% 77) 44-64 urte-tartean daude.

Parte-hartzaileak eragile-motaren arabera

% 93 leioarrak izan ziren. Halaber, elkartetako pertsonak (% 23), bisitariak (% 8) eta udal-ordezkariek (% 23) hartu zuten parte. Nabarmenezkoa da mota bat baino gehiagotako eragilea izan daitekeela.

Parte-hartzaileak tokiaren arabera

Ia parte-hartzaile guztiak udalerrikoak dira (% 93). Honela banatuta geratzen da partaidetza auzoka: % 23 Lamiako-Txopoetakoak dira; % 23, San Bartolomekoak; % 15, Udondokoak; % 8, Pinuetakoak; eta % 16, beste auzo batzuetakoak. Gainerako % 7a beste udalerrri batekoak dira.

Parte-hartzaileak parte hartzeko hizkuntzaren arabera

Nahiz eta informazio-aurkezpena elebiduna izan, saioetan gaztelaniaz hartu zen parte; hala ere, bi hizkuntzetan parte hartzeko aukera egon zen.

3.4. LORTUTAKO EMAITZAK

3.4.1. NATURA-INGURUNEA

Natura-ingurunearen gaiak izan zuen adostasun handiena. Auzo eta saioetako parte-hartzaileek adierazi zuten igarobide berdeen bidez lotu behar lirartekeela udalerrri osoko naturaguneak, igarobide horiek ibilbide edo bide gisa seinaleztatuta.

Lamiakon, garrantzitsutzat jo zen hezegune zaharraren eta Ondizeko hegalarren egoera ekologikoa hobetzea. Hezegun zaharraren kasuan, hura leheneratzea proposatu zen, hartaz gozatu ahal izateko, suntsitu ordez. Hegalari dagokionez, uste da bideak ireki beharko lirartekeela (batzuk itxita daude gaur egun), eta zona batzuk hobetu, aisialdirako eta paseorako zona gisa, baita beste auzo batzuetako naturaguneekin lotzeko ere. Landa-zonei dagokienez, garrantzitsutzat jo zen Peruri eta iparraldea babestea, udalerriko basogune bakarra baita.

San Bartolomen, Kurkudi nabarmendu zen babestu, zaindu eta integratu beharreko naturagune gisa. Garrantzitsua da hura San Bartolomerekin lotzea, baita udalerriko gainerako naturaguneekin ere. Bestalde, Landabarri erreka oso oso artifizializatuta eta gutxi zainduta dagoela aipatu zen.

3.4.2. MUGIKORTASUNA

Mugikortasunak askotariko iritziak izan zituen auzoetan.

Lamiakon, parte hartu zutenek garrantzitsutzat jo zuten oinezkoentzako eta txirrindularientzako mugikortasuna hobetzea Udondo eta Astrabuduaren arteko loturan. Oinezkoentzako mugikortasunari dagokionez, Ondizeko hegaleko bidea nabarmendu zuten, loturak hobetzeko, eta bide edo ibilbide horiek seinaleztatzearen garrantzia, erabilera errazteko.

San Bartolomen, ibilgailu pribatuarekiko menpekotasun handiagoa dagoela adierazi zen, hurbileko zerbitzu gutxiago daudelako, eta udalerrria zabala dela (eta hiri-egitura barreiatuago dagoenez, autoarekiko menpekotasun handiagoa du). Hori dela eta, erdigunean edo oinarriko zerbitzuak (esaterako, anbulatorioa) dauden eremuetan

aparkalekurik ez dagoela nabarmendu zuten. Bestalde, garrantzitsutzat jo zen bizikletako bide-segurtasuneko kanpaina bat egitea bizikletaren erabilera eta kultura sustatzeko. Garraio publikoari dagokionez, hobeto zabaldu behar dela ere uste da.

3.4.3. ESPAZIO PUBLIKOA

Espazio publikoaren gaian, parte-hartzaile guztiek esan zuten dauden parke guztiak mantendu eta babestu behar direla, eskuarki. Bestalde, mugikortasunean bezala, Leioako gune zehatz batzuk hobetu behar direla esan zen.

Lamiakon, aipatu zen “gehiagora egin behar dugula, eta ez gutxiagora”, eta hau zehaztu zen:

- Daudenez gain, garrantzitsua da zubiaren bidez Astrabuduarekiko lotura zaharraren ingurua berreskuratzea (mugikortasunean ere aipatua), baita zubiaren eta itsasadarraren arteko lotura ere. Nabarmentzeko aukera duen espazio publiko gisa nabarmendu zuten espazio hori.
- Bestalde, adierazi zuten Pinueta auzoa utzita dagoela eta berdeguneak behar dituela, baita hegala aprobetxatzea ere.
- Beste espazio aipagarri bat Begoñako Amara igotzeko bidea da, ez baitago zainduta, baina aukera asko baititu.

San Bartolomen, hauek nabarmendu ziren:

- Plaza publikoetan berdeguneak eta itzalguneak jartzeko beharra.
- Irlandesas ikastetxerako igoera hobetzeko beharra.
- Gobela eraikinaren ingurunea hobetzeko beharra, gaur egun ez baitu konexiorik, itxita dagoelako.

3.4.4. ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren gaiak adostasun handia sortu zuen lan-mahaietan, lehenik eta behin, lurzoru berriak ez artifizializatzeari eta gehiegi ez handitzeari dagokionez, kontuan izanik indarrean den HAPOk dagoeneko jasotzen eta planifikatzen duen etxebizitza berrien kopuru handia. Parte hartu zutenek ere aipatu zuten etxebizitzak edo lokal komertzialak presta daitezkeela bizitegi-eraikinen beheko solairuetan, udalerriko eremuen eta haietako behar espezifikoaren arabera (Getxon, adibidez, kaleka zehazten da).

Lamiakon, adierazitakoaz gain, adierazi zuten garrantzitsua zela altuerak inguruko paisaiarekin eta eraikinen bat etortzea, eta gehiegizkotzat jo zuten Lamiakon 1.200 etxebizitza egitea. Bestalde, etxebizitza berriak eginez gero, uste dute gehienek babes publikokoak izan behar luketela.

Bestalde, San Bartolomen, auzoa gehiegi handitu ordez, garrantzitsua da auzotarren bizi-kalitatea hobetzea. Lamiakon bezala, nabarmendu zuten garrantzitsua zela altuerak eremuen arabera mantentzea, eta aipatu zuten, baserriak aprobetxatu eta ez eraisteko, etxebizitza kolektiboak egin zitezkeela haietan, kanpoaldea mantenduta.

Azkenik, Kulturen, Santimami inguruko parte-hartzaileek uste dute eremu hori garapen misto potentzialeko eremutzat hartu behar dela (bizitegiak eta jarduera ekonomikoak), Laubiderekin eta Lamiakorekin batera, udalerrian geratzen diren lurzoru-poltsa bakarrak baitira.

3.4.5. JARDUERA EKONOMIKOA

Jarduera ekonomikoaren gaiak eremu batzuetako ekarpen eta problematika zehatzak bildu zituen, auzoen arabera.

Lamiakon, Leioandiko eremua nabarmendu zuten, denda-faltagatik, baita Dow Chemical-en eremua ere, industriak edo zerbitzuak parke eta espazio publiko berriarekin konbinatzeko lurzoru posible gisa. Nekazaritza eta abeltzaintzarako eremuei dagokienez, oso garrantzitsutzat jo zuten Santsoena eta Peruri mantentzea eta babestea.

San Bartolomen, mugikortasunaren gaian esan bezala, denda-falta eta hurbileko zerbitzurik eza nabarmendu zuten, horrek mugikortasun jasangarria zailtzen baitu. Industriadako lurzoruei dagokionez, daudenak berrantolatu behar liratekeela adierazi zuten. Gainera, aipatu zuten Ibaiondoko supermerkatuen egungo eremuan, trafikoko arazoak daudela, auto-fluxu handiak erakartzen baitituzte. Azkenik, nekazaritzari eta abeltzaintzari dagokionez, uste dute

San Bartolomen eta haren inguruan badirela lurrak, baina ez dagoela jende asko haiek lantzeko, nahiz eta sustatu egin behar litzatekeen aisiako baratzeei dagokienez, adibidez.

3.4.6. EKIPAMENDUAK

Ekipamenduen gaian, diagnostikotik ateratako gaur egungo beharrak zehaztu ziren. Parte hartu zutenek nabarmendu zuten beharrezkoa dela anbulatorio berri bat egitea (gaur egungoaren eragin-eremuaren eta garapen berrien arabera), eta, gainerako ekipamenduei dagokienez, auzoka zehaztu ziren.

Lamiakon, nabarmendu zuten erabiltzen ez diren lonjak edo eraikinak presta daitezkeela ekipamendu-euskarri gisa (osasun-arlokoa, bizitegietakoa, soziokulturala...). Lamiakoko ikastetxe publikoa aipatu zuten adibide gisa; gaur egun, ikasle gutxiago ditu, eta beste erabilera batzuetara bidera daiteke. Kirol-ekipamenduei dagokienez, uste dute garrantzitsua dela metroa lurperatzea areto-futboleko eremuaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko.

San Bartolomen, laguntza-ekipamenduak behar zirela nabarmendu zuten, eta, oro har, udalerrian egoitza integratu bat behar da, edo hiri-sarearekin lotutakoa, eta ez isolatua. Kirol-ekipamenduei dagokienez, uste dute udal-plaza gutxi daudela, kiroldegi berriak garraioa edo sarbide hobea beharko duela, eta erabilera anitzeko espazio txikiak falta direla auzoetan, eguneroko jarduerak egiteko. Gainera, esan zuten lokalak edo espazioak behar direla auzo-komunitateak bildu ahal izateko.

3.4.7. ONDAREA

Ondarearen gaiak adostasun-maila handia sortu zuen ondare-balioa duten baserriak eta eraikinak kontserbatzeari dagokionez. Bi saioetan, Ondizeko eremuan, espazio publikoko elementuak, (esaterako, hegaleko eskorga-bidea) eta eraikinak (adibidez, Atxutene jauregia eta Ondizeko ermita) nabarmendu ziren.

Lamiakon, aurrekoek gain, Udondoko zubia nabarmendu zuten, baita hura ezagutarazteko eta agerian jartzeko beharra ere, gaur egun ia oharkabean baitoa.

San Bartolomen, etxebizitza gisa edo beste erabilera batzuekin kontserbatu beharreko baserrien artean, errota dagoen tokikoa azpimarratu zuten. Ondizeko ermitaren kasuan, uste dute jarduera gehiagotarako erabili beharko litzatekeela.

3.4.8. JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA

Jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren gaiak ez zuen ekarpen handirik izan, nahiz eta garrantzitsutzat jo zuten parte-hartzaileek.

Lamiakon, Bizkaibizi proiektua aipatu zen, Bizkaia osoan barrena bizikleta publikoan ibili ahal izateko. Haien ustez, ekimen hori onuragarria eta garrantzitsua da bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko.

San Bartolomen, espazio publikoetan (nola plazetan hala kaleetan) zuhaitzak eta berdeguneak egotearen garrantzian jarri zen arreta. Gainera, aipatu zen zeinen garrantzitsua den izapideak bizkortzea eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko.

3.4.9. INKLUSIBOTASUNA ETA OSASUNA

Oro har, parte-hartzaileek garrantzitsutzat jo zuten Leioako espazio publiko guztiak irisgarriak egitea. Hain zuzen ere:

- Artatza parkeko espaloien irisgarritasuna hobetzea. Autoz bete ohi dira, eta arriskutsua da.
- Artatzaren eta Pinueta auzoaren arteko lotura hobetzea.
- Iparagarre etorbidearen irisgarritasuna hobetzea.
- Dibertsitate funtzionaleko haurrentzako elementuak jartzea haurren jolastokietan (ez dago).

Osasunari dagokionez, nagusiki zarata izan zen kezka, ez bakarrik Avanzadan, baita igarobidean ere.

4. IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

Aurreko fasean prestatutako diagnostikoa eta partaidetza-prozesuan aipatu ziren mehatxuak eta aukerak kontuan hartuta, helburuak ezartzen dira, nola orokorrak hala espezifikokoak, plangintza-aurrerapena nola idatzi bideratzeko:

4.1. INGURUMEN-ALDERDIAK

Obj. general 1 HAPOren bitartez, lurralde-antolamenduko eredu jasangarri bat garatzea, EAEko ingurumen-konpromisoak berretsiko dituen

- Obj. específ. 1.1 Diziplina anitzeko metodologia bat garatzea ingurumen fisikoa karakterizatzeko eta lurraldeko osoko analisia egiteko
- Obj. específ. 1.2 Lurraldeko ingurumen-egoerari, arazoei eta lehentasunei buruzko eguneratutako diagnostikoa ezartzea
- Obj. específ. 1.3 EAEk bere gain hartutako ingurumen-konpromisoak eta jarduera-estrategiak HAPOren proiektuan sartzea
- Obj. específ. 1.4 Antolamendu-proiektuaren ingurumen-ebaluazioko metodologia HAPO prestatzeko hasierako faseetatik aplikatzea
- Obj. específ. 1.5 Herritarrek parte hartzeko prozesuen eta 2030erako Agendako ekintza-planen ondoriozko eskaerak HAPOn sartzea
- Obj. específ. 1.6 Naturaren eta aisiako eremuen, bidezidorren eta abarren erabilera publikoko eskaerei erantzuteko aurreikuspenak antolamendu-proiektuan jasotzea

Obj. general 2 Herritarrak eta erakundeak udalerriko ingurumen politikarekiko sentsibilizatzea sustatzea

- Obj. específ. 2.1 HAPOren garapenarekin landa-inguruaren ezagutza sustatzea

Obj. general 3 Lurzoru naturalaren kontserbazioaren alde egitea

Obj. general 4 Lurzoruaren zenbait okupazio era eta erabilera kontrolatzea

- Obj. específ. 4.1 Lurzoru urbanizaezina, inguru naturala eta inguru periurbanoa integratzeko diseinu berezia

Obj. general 5 Biodibertsitatearen birsorkuntza eta kontserbazioa

- Obj. específ. 5.1 Legez babestutako naturaguneen mugak eta araudia jasotzea
- Obj. específ. 5.2 Lurzoruaren antolamenduko kategoriak modu jasangarrian kudea daitezela sustatzea, kontserbazioa aintzat hartuz.

Obj. general 6 Ingurumen-arriskuak kontrolatzea garapen berriak egitean eta lehendik zeudenak birsortzean.: Uholdeak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, zaratak eta eragin akustikoa, akuiferoen kutsadura.

- Obj. específ. 6.1 Arriskua uholdeengatik.
- Obj. específ. 6.2 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.
- Obj. específ. 6.3 Zaratak eta eragin akustikoa.
- Obj. específ. 6.4 Maldak eta litologia eta estratuen kokapena baloratzea.
- Obj. específ. 6.5 Udalerria zeharkatzen duten eta beharbada narriatuta dauden erreka eta ubideen ertzak leheneratzeko eta integratzeko irizpideak Plan berrian integratzea.

- Obj. general 7** Oraingo gune babestuak eta berdeguneak plangintza berriaren ondoriozkoekin lotzea, jarraitutasun ekologikoa sustatzeko.
- Obj. específ. 7.1 Naturaguneak isolatuta eta zatituta gera daitezen saihestea, igarobideen eta eraztun berdeen bidez lotuz.
- Obj. general 8** Hirian eta aldirietan dauden zuhaitzak babestea.
- Obj. general 9** Lamiakoko dartsena leheneratzea eta Astrabuduako ibarra babestea
- Obj. específ. 9.1 Hezeguneen LPSeko irizpideak hartzea, Lamiakoko dartsena leheneratzeari eta Astrabuduako ibarra babesteari dagokionez.
- Obj. general 10** Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak garatzen diren kokapenak berreskuratzea
- Obj. específ. 10.1 Ingurumen-hobekuntzako areak biltzea eta inbentariatzea
- Obj. específ. 10.2 Ingurumen-inpaktuaren analisia sustatzea, lurzoru urbanizaezineko jarduketetarako eta ingurune naturalari, paisaiari eta baliabide naturalei eragiten dieten jarduketetarako
- Obj. específ. 10.3 Paisaiaren estetika zaharberritzeko jarduerak sustatzea
- Obj. específ. 10.4 Lehentasuna ematea kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak modu bateragarrian kalifikatzeari, zer egoeratan dauden kontuan hartuta

4.2. INGURUNE FISIKOA

- Obj. general 11** Interes handieneko baliabideak eta naturaguneak babestea.
- Obj. específ. 11.1 Haltzadiak ibaietan eraturako lehentasuneko habitatak.
- Obj. específ. 11.2 Bertako hostozabalen baso guztiak babestea (artadiak, haltzadiak, hariztiak, eta baso mistoa), haien kontserbazioa ziurtatzeko eta igarobide ekologiko gisa duten funtzioa indartzeko.
- Obj. específ. 11.3 Hezeguneen LPSak Lamiakoko dartsenarako, Lertutxeko urtegirako eta Astrabuduako ibarrerako ezartzen dituen babes-irizpideak jasotzea eta finkatzea.
- Obj. específ. 11.4 Natura-interes berezia duten kokalekuen katalogo bat biltzea udal-mailan haiek babesteko. Katalogo horretan, besteak beste, Batasunaren intereseko habitat guztiak, eta mehatxatutako flora eta fauna izan dezaketen eremuak jasoko dira, haien kudeaketa- eta babes-irizpideekin batera, baita interes geologikoko tokien eta interes geologikoko puntuen inbentarioa ere.
- Obj. específ. 11.5 Narriatuta dauden ekosistemak leheneratzea, habitatak hobetu daitezen eta eta, aldi berean, udalerrriaren paisaia-kalitatea areagotu dadin.
- Obj. general 12** Egungo nekazaritza-lurzoruek okupaturako azalerak babestea eta nekazaritza-lurzoruei eta lurzoru horien ingurune ekologikoari lotutako ziklo naturalen ingurumen-kalitatea zaintzea.
- Obj. específ. 12.1 Nekazaritza eta basogintzako LPSean arauak eta zehaztapenak abiapuntuko erreferentzia gisa erabiltzea
- Obj. específ. 12.2 Nekazaritzako lurzoruak mugatzeko irizpide gisa lurzoru-moten gaikako kartografiaren analisia eta haiek nekazaritzarako erabiltzeko gaitasuna erabiltzea
- Obj. específ. 12.3 Ingurune fisikoaren ezaugarrietatik datozen eta nekazaritzako lurzoruei eragin diezaieketen mugak ezartzea, haien erabilera jasangarria ziurtatu ahal izateko, gainjarritako baldintzak aplikatuta
- Obj. específ. 12.4 Nekazaritza-sektorea ezaugarritzeko erabil daitezkeen informazio estatistikoaren bilketa eguneratzea

- Obj. específ. 12.5 Informazio-bilketan tokiko nekazaritza-elkarteekiko elkarrizketa sartzeta
- Obj. específ. 12.6 Nekazaritza-lurzoru berriengatik ordezkatzean dautzan neurri zuzentzaileak kontuan hartzea, haien okupazio justifikatuko kasuetan.
- Obj. general 13 Baso-lurzoruen okupazioa berrorekatzeta**
- Obj. específ. 13.1 Leioan dauden baso autoktonoak babestea, eta hura leheneratuko eta hedatuko dela ziurtatzen duen lurzoru berria gordetzea.
- Obj. específ. 13.2 Esparru egokitueta baso-ustiapena saihestea, baso autoktonoei jarraipena emateko.
- Obj. específ. 13.3 Espezie aloktonoetarako uztea jarduera horretarako ezaugarri egokiak dituzten lurzoruak (malda egokia), eta baso-lurzoruen ziklo naturalar errespetatzen duten basoko tekniken erabilera erraztea.
- Obj. específ. 13.4 Araudian basoak modu iraunkorrean kudeatu behar direla adieraztea, pistak irekitzeko, garbitzeko eta baso-soilketa garatzeko baldintzak ezarriz.
- Obj. específ. 13.5 Nekazaritza eta Basogintzako LPSean arauak eta zehaztapenak abiapuntuko erreferentzia gisa erabiltzea.
- Obj. específ. 13.6 Lurzoruak mugatzeko irizpide gisa lurzoru moten gaikako kartografiaren analisia eta horiek basogintzarako erabiltzeko gaitasuna erabiltzea
- Obj. específ. 13.7 Erabilerak arautzean, muga murriztaileak sartzeko aukera aztertzea, nekazaritza-lurzoruak baso-sailekin okupatzeari dagokionez
- Obj. general 14 Ibaien sarearen babesa eta berreskuratze ekologikoa ziurtatzea**
- Obj. específ. 14.1 HAPOan osoko antolamendurako irizpideak sartzeta, azpiarro hidrografikoetako ziklo hidrologikoen funtzionamendua kontuan hartuta
- Obj. específ. 14.2 EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze eta Babesteko LPSeke arauak eta zehaztapenak erabiltzea abiapuntuko erreferentzia gisa
- Obj. específ. 14.3 Uraren Esparruko Zuzentarauaren eta EAEko azaleko uren egoera ekologikoari buruzko azterketa diagnostikoaren arauak barne hartzea (Uraren Euskal Agentzia)
- Obj. específ. 14.4 Azpiarro hidrografikoen bertako ikuspegia hartzea, lurralde-analisirako ingurumen-unitate gisa
- Obj. específ. 14.5 Azaleko drainatze sarea mugatzea eta babestea, ubide nagusiak, euren adarrak eta goi-ibarreko errekek barne
- Obj. específ. 14.6 Ibai ertzekin lotutako landaredi naturaleko eremuak babestea eta, erabilerak arautuz, ertzen birsorkuntza sustatzea
- Obj. específ. 14.7 Lurzoru kategoria desberdinetako lurzoruaren erabileren erregulazioaren barne sartzeta ibai sistemaren kalitatea kaltetu dezaketen arrisku naturalak prebenitzeko gainjarritako baldintzatzaileak, urak gainezka egiteko aukeratik, akuiferoen kalteberatasunetik eta higatzeko aukeratik eratorrita
- Obj. específ. 14.8 Existitzen diren baliabide hidrologikoak babestea eta akuiferoak berriz kargatzeko ziklo naturalak babestea
- Obj. específ. 14.9 Baliabide hidrologikoen babesa kontuan hartzea, bere inguru naturalaren funtzionamenduarekin lotutako prozesu baten zati gisa
- Obj. específ. 14.10 Akuiferoak elikatzen dituzten arro hartzaileen lurzoruak eta landare-estalkia babestea, lurzoru okupatzen eta erabiltzen duten jarduerak arautuz.
- Obj. específ. 14.11 Lurzoruen gainjarritako baldintzatzailea erabiltzea akuiferoak kutsatuz gero eta higaduraren arriskuen aurrean, akuiferoak berriz kargatzen dituzten ziklo naturalak babesteko
- Obj. específ. 14.12 Akuiferoak berriz kargatzeko prozesuak aldatzen dituzten nekazaritza eta abeltzaintzako, basoko eta urbanizazioko jarduerak mugatzeko aukera kontuan hartzea, higadurarako

arriskuak eragiten eta elementu finak eta materia organikoa ibaien sarerantz arrastatzen dituztelako

Obj. general 15 Bertako biodibertsitatea babestea eta birsortu dadila sustatzea

- Obj. específ. 15.1 Eusko Jaurlaritzako eta BFAko dokumentu estrategikoen arauak eta zehaztapenak, Biodibertsitatea kontserbatzeko azterketak eta arauak abiapuntuko erreferentzia gisa erabiltzea.
- Obj. específ. 15.2 Planaren kartografia prestatzea, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-kartografia tematikotik abiatuta. Aldian-aldian eguneratzea, kartografia horretan oinarrituta, baliabide naturalei eta haien egoerari buruzko informazio berriena izateko: landaredia, flora eta fauna mehatxua, Batasunaren intereseko habitatak, arauen bidez babestutako tokiak, etab.
- Obj. específ. 15.3 Bertako biodibertsiterako baliogarriak diren elementuen zerrenda bat osatzea, Baliabide Natural Estrategikoen Udal Inbentario batean sartzeko
- Obj. específ. 15.4 Baloratutako analisi bat ekartzea, zonaldean dauden eta interes handiagoa duten paisaiak, ekosistemak, habitatak eta espezieak babesteko, berreskuratzeko eta kontserbatzeko lehentasunak adieraziz
- Obj. específ. 15.5 Leioako biodibertsitatea kontserbatzeko estrategia ezartzea, lurzoru-kategoria desberdinen osagarritzko aukerak kontuan hartuta, murriztaileenak diren kategoriak alferrik erabiltzea saihestuz.

Obj. general 16 Zenbait area kaltebera babestea zenbait arrisku zehatzaren aurrean

- Obj. específ. 16.1 Nekazaritza eta Basogintzako LPSak garatutako gainjarritako baldintzetarako garatutako metodologia eta arauak abiapuntuko erreferentzia gisa erabiltzea, eta bestelako faktoreetara zabaltzea.
- Obj. específ. 16.2 Gainjarritako baldintzen faktore desberdinen lurraldea mugatzeko berezko kartografia zehatza bat osatzea, informazio eskuragarria abiapuntu hartuta.
- Obj. específ. 16.3 Kartografiaren mugak osatzea lurzoruaren erabileren dagokion erregulazioarekin eta aipatutako eremu bakoitzerako kudeaketa-irizpideak eta -arauak eginez.

Obj. general 17 Lurzoruaren baliabidea optimizatzea

- Obj. específ. 17.1 Lurzoru birjinak okupatzea saihestea eta dagoeneko artifizial bilakatu direnak erabiltzea

Obj. general 18 Paisaiaren ezaugarriak babestea eta hobetzea

- Obj. específ. 18.1 Ibarrak betetzea eta ur-ibilbideak estaltzea saihestea.
- Obj. específ. 18.2 Ingurumenaren aldetik lehenera daitezen proposatzea, zerbait egin behar den toki guztietan bertako espezieak landareztatuta.
- Obj. específ. 18.3 Baldintza estetikoak sartzeko sentikorrenak diren eremuen jarduketetan, besteak beste, ingururako egokiak diren materialen sustapenaren bidez.
- Obj. específ. 18.4 Airezko instalazio elektrikoak ezkutatzearen alde egitea.

Obj. general 19 Nekazaritza-aprobetxamenduen proposamen berriak egitea

- Obj. específ. 19.1 Hiri-baratzeen kokapenaren erregulazioa eta aukerak.

4.3. HIRI-INGURUNEA

Obj. general 20	Hiri-espazioak hobetuta eta lurzoru-kontsumoa optimizatuta, eredu orekatua lortzea
Obj. específ. 20.1	Hiri mota trinkoa proposatzea, behar bezalako dentsitate altuak hartuz eta erabilerak malgutasunez esleituz
Obj. específ. 20.2	Erabilera bateragarrietan jarduera ekonomikoen eta bizitegien erabilera mistoak faboratzea.
Obj. específ. 20.3	Beheko solairuen okupazioan bizitoki eta hirugarren mailako erabileren (merkataritza-zerbitzuak) arteko oreka mantentzea, lehentasunezko zonalde batzuk haztatuz
Obj. específ. 20.4	Finkatutako hiri sareak optimizatzea, eta hiri sarea osatzea eten egiten duten puntuetan
Obj. específ. 20.5	Proposatutako dentsitateak eta tipologiak lurraldeko gaitasunari eta udalerriko izaerari egokitzea
Obj. específ. 20.6	Hiri eszena gune publikoaren arabera konfiguratzea, gune libreak dauden zonalde desberdinen jarraitutasuna eta konektibitatea aztertuz
Obj. específ. 20.7	Existitzen den industria paisaiaren hirigintza alderdia hobetzea

4.4. BIZITEGI-LURZORUA

Obj. general 21	Bizitegirako behar den lurzoria lortzea, askotariko etxebizitzaren eskaera asetzeko
Obj. específ. 21.1	Bilbo Metropolitarraren LPPeko zehaztapenen eta hautemandako beharren arabera kuantifikatzea etxebizitza-beharra
Obj. específ. 21.2	Etxebizitzaren eskaintza benetako premiari eta lortu nahi den biztanleria-tamainari doitzea
Obj. específ. 21.3	Etxebizitzaren garapena modu gradualean eta zerbitzuen eta ekipamenduen hornikuntzarekin era orekatuta programatzea
Obj. específ. 21.4	Plangintzan bete gabe dagoen gaitasuna berrikustea, irisgarritasun eta legitimitate irizpideen arabera
Obj. específ. 21.5	Hutsik dauden etxebizitzak, alokairuan edo salgai, merkaturatzeko neurriak proposatzea
Obj. específ. 21.6	Eraikuntza dentsitate eta tipologia desberdinetako bizitoki area desberdinak ezartzea, euren kokapena, tipografia eta hiri inguruko ezaugarrien arabera
Obj. general 22 bilakatzea	Planteatutako eremu berriak eta indarreko plangintzako eremuak bideragarri
Obj. específ. 22.1	Unitateak mugatzea, zamak eta onurak modu orekatuan banatu ahal izateko, jabeen interesak zein ondasun publikoak bermatzeko moduan
Obj. específ. 22.2	Kudeaketa oso bideragarria ez izateagatik garatu ez diren areak berriz aintzat hartzea
Obj. general 23 hartzea	Eremu zaharkituak edo irisgarritasun-arazoak dituztenak leheneratzeko neurriak
Obj. específ. 23.1	Irisgarritasuneko eta hiri-egokitzapeneko arazo handienak dituzten eremuak birgaitzeko aukera ematen duten jarduerak aztertzea.

4.5. JARDUERA EKONOMIKOAK

Obj. general 24	Lehen sektore dibertsifikatu eta iraunkorra lortzeko lan egitea
Obj. específ. 24.1	Nekazaritza-jardueraren eta ingurumenaren arteko oreka bilatzea
Obj. específ. 24.2	Nekazaritza-lurzoru onenak gordetzeko neurriak aplikatzea
Obj. específ. 24.3	Bizitegi-erabilerarekin bateraezinak diren jarduerak lekuz aldatzeko aukera ematea

Obj. general 25	Hiri-merkataritza indartzea hiri-bizigarritasuneko faktore gisa
Obj. específ. 25.1	Merkataritzako dinamizazioa trafikoa lasaitzeko, oinezkoak eta txirrindulariak sustatzeko eta gune publikoa hobetzeko neurriekin uztartzea
Obj. específ. 25.2	Ez sortzea hirigunearekin lotu gabeko merkataritza-gune periferikorik
Obj. específ. 25.3	Hutsik dauden lonjak ez diren beste aukera desberdinak proposatzea
Obj. general 26	Ekonomia jarduera berriak barne hartzeko lurzoruak hornitzea
Obj. específ. 26.1	Bizitegi-erabilerarekin dauden jarduerak lekuz aldatzeko aukera ematea
Obj. específ. 26.2	Jarduera ez kutsatzaile berriak finkatzeko aukera ematea
Obj. específ. 26.3	Garapen berrietan erabilera mistoen alde egitea
Obj. general 27	Lehendik zeuden industria-eremuen eboluzioa planteatzea
Obj. específ. 27.1	Existitzen diren jardueren jarraitutasuna aztertzea eta etorkizuneko aukerak epe ertainera eta epe luzera planteatzea
Obj. específ. 27.2	Existitzen eta aurreikusten diren garraio azpiegiturek suposatzen dituzten afektazioak baloratzea

4.6. EKIPAMENDUAK

Obj. general 28	Zerbitzatutako populazioari egokitutako ekipamenduen eskaintza hornitzea, bai existitzen den populaziora eta bai proposatzen diren garapenera
Obj. específ. 28.1	Proposamen berriak egitean, hautemandako desorekak kontuan hartzea eta hautemandako gabeziak osatzea
Obj. específ. 28.2	Gertutasun- eta irisgarritasun-irizpideak ekipamenduen kokapenean eta banaketan aplikatzea
Obj. específ. 28.3	Baliabideen kudeaketa optimizatzea, gertuko udallerriekin elkarlanean jardunez, bai erabilera partekatuaren bidez, bai ekipamendu berriak sortzeko kostuetan
Obj. general 29	Hazkuntza handiena eduki ditzaketen ekipamenduen kokapena baloratzea
Obj. específ. 29.1	Irakaskuntza eta kultur ekipamenduak hazteko eta hobetzeko aukera aurreikustea
Obj. específ. 29.2	Kirol-ekipamenduen eskaintza hobetzea, bai auzo-mailan bai oro har, eta jarduera berrien kokapena proposatzea
Obj. específ. 29.3	Eraikuntzaren aldetik interesgarriak diren industria-pabilioietan ekipamendu-erabilerak sartzeko aukera aztertzea
Obj. general 30	Berdeguna irekien sistema koherente bat kontserbatzea eta sortzea, biztanleen osasunerako eta ingurumeneko osasunerako funtsezkoa
Obj. específ. 30.1	Sistema orekatu bat sortzea, eskala guztietan: tokiko sistemetan nahiz udalez gaindiko aisialdi-eremu handietan
Obj. específ. 30.2	Motorizatu gabeko, oinez, bizikletaz edo bestelako moduetako irisgarritasuna bideratzea
Obj. específ. 30.3	Lehendik zeuden landaredi- eta ur-elementuak integratuko dituen sare bat diseinatzea, eta gune sortu berrietan bertako landaredia erabiltzea
Obj. específ. 30.4	Proposatutako gune libreen sistema orokorretako titulartasun publikoaren maila kontuan hartzea eta horiek kudeatzeko aukerak baloratzea
Obj. específ. 30.5	Gune libreen zerbitzuaren maila bereiztea, toki, udal eta udalez gaindiko eremuko mailak bereiziz

- Obj. general 31** **Guen publikoak erabiltzeko segurtasunaren alde egitea**
- Obj. específ. 31.1 Parte-hartze prozesuetan atzemandako “puntu beltzak” ezabatzea
- Obj. específ. 31.2 Oinezkoen ibilbideetan ikusgarritasunaren alde egitea, bereziki banatutako auzoetan eta hiri sarean integratu gabeko ekipamenduetan
- Obj. específ. 31.3 Guen publikoen irisgarritasuna bermatzea
- Obj. general 32** **Ekipamenduak udalerrian existitzen diren udalez gaindiko mailako ekipamenduak eboluzionatzeko aukera planteatzea**
- Obj. específ. 32.1 Existitzen diren jardueren jarraitutasuna aztertzea
- Obj. específ. 32.2 Epe ertaineko eta epe luzeko etorkizuneko aukerak planteatzea

4.7. ERREPIDE-SAREAK ETA GARRAIOAK

- Obj. general 33** **Mugikortasun iraunkorra sustatzea**
- Obj. específ. 33.1 HAPO Irisgarritasun Planarekin koordinatzea
- Obj. específ. 33.2 HAPO Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planarekin koordinatzea
- Obj. específ. 33.3 Trafikoa lasaitzeko neurriak ezartzea.
- Obj. específ. 33.4 Hiriko eta hiriarteko garraio publikoko moduen arteko osagarritasuna sustatzea.
- Obj. específ. 33.5 Bidegorri-sareko askotariko tartekak luzatzea eta lotzea.
- Obj. específ. 33.6 Oinezkoentzako eremu gehiago jartzeko neurriak hartzea, ibilgailuentzako eremuen kalterako.
- Obj. específ. 33.7 Oinezkoentzako ibilbideen sare bat egituratzea
- Obj. general 34** **Tentsio handiko eremuetan aparkalekuen erabilera arautzea**
- Obj. específ. 34.1 Hirigunean, aparkaldia arautzeko txandakako sistemak proposatzea, gizarte-bizitza eta merkataritza dinamizatzea.
- Obj. específ. 34.2 Aparkalekuak bertakoentzat kokatzea
- Obj. específ. 34.3 Disuasio aparkalekuen aukera kontuan hartzea

4.8. ZERBITZU-SAREAK

- Obj. general 35** **Hornikuntza eta saneamendua hobetzea**
- Obj. específ. 35.1 Uren kalitatea babestea arroetan eta bilketa puntuetan, erabileren erregulazioaren bidez, lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategorien eta gainjarritako baldintzen bitartez
- Obj. específ. 35.2 Lamiakoko ponpatze-estaziotik (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ETDSU proiektua) egiten diren isurien kalitatea bermatzea.
- Obj. general 36** **Argiztapen publikoko sistemak irizpide iraunkorrekin diseinatzea**
- Obj. específ. 36.1 Sare berriak energia-eraginkortasuneko irizpideekin diseinatzea.

4.9. ONDARE HISTORIKO, ARTISTIKO ETA KULTURALA

Obj. general 37	Interes historiko, artistiko eta kulturaleko elementuak babestea
Obj. específ. 37.1	Beren eraikuntza-berezitasunagatik edo balio estetiko, kultural, historiko edo artistikoengatik udalerrian nabarmentzen diren eraikuntza guztien katalogo bat prestatzea; legez babestutakoak ez ezik, babestuta egon ez arren, mantentzeko eta kontserbatzeko arreta berezia merezi dutenak jasoko dira
Obj. general 38	Ondarea erakargarri turistiko gisa indartzea
Obj. específ. 38.1	Elementurik garrantzitsuenen seinaleketika eta irisgarritasuna hobetzea
Obj. específ. 38.2	Interes arkitektonikoko, historikoko eta kulturaleko eraikuntzak ezagutaraztea: baserriak, erabilera industrialeko eraikinak, azpiegiturak, etab.
Obj. general 39	Natura-ondareko elementuak babestea
Obj. específ. 39.1	Udalerriko paisaiaren kalitateari laguntzen dioten elementu naturalak babesteko neurriak aplikatzea.

5. ETXEBIZITZEN KUANTIFIKAZIOA

2006ko LPP-BMan 6.613 etxebizitza berriko kuantifikazioa ezarri zen, baina LAG berriro aztertu ondoren % 50 ingurura murriztu zen, 3.625 etxebizitzara, eta are gehiago murriztu da LLPP-BMaren bertsio berrian (2025), 1.849 etxebizitza berrikoa baita.

Etxebizitzen Kuantifikazioa	gehienekoa
Bilbo Metropolitarraren LPP (2006)	6.613
LAG (2019)	3.625
Bilbo Metropolitarraren LPP (2025)	1.849

5.1. METODOLOGIA

LAGen 13.2.a) 3) artikuluan adierazitakoaren arabera, “Hirigintza-plangintzaren kasuan, bizitegi-kuantifikazioa kalkulatzeko, planaren behin betiko dokumentua idazteko irizpide-hartzearen erabakiaren data baino lehenagoko datuen estatistika ofizialean oinarritu behar da”. Hau da, aurrerapena idazteko fasean kalkulatu behar dira berriro kopuru horiek, LAGetan jasotako metodologiaren arabera. Aldagai hauek hartzen dira kontuan metodologia horretan:

- Lehen urrats batean etxebizitzen kopuruan egon behar den igoera kalkulatu da, etxebizitza nagusien premiak, bigarren etxebizitzen eskaera eta aurrekoekin lotutako hutsik dauden etxebizitzen aurreikuspena kontuan hartuta.
- Bigarren urrats batean, plangintzaren hasieran bizitegi-ahalmen egokia kalkulatu da, aurreko urratsean proiektatutako etxebizitza kopuruaren igoerari egokitutako harrotze-faktore bat aplikatuz.
- Lortutako emaitzari hutsik dauden eta berreskuratu nahi diren etxebizitzen kopurua kentzen zaio, bizitegi-ahalmena murrizteko asmoz.

Gainera, baldintza hauek hartu behar dira kontuan:

- 1) Hiri-lurzorurako eta lurzoru urbanizagarriko udal-plangintza orokorrean aurreikusitako bizitegi-ahalmenak ez du gaindituko bizitegi-beharrak kalkulatzeko haiei harrotze-faktorea aplikatu ondoren sortzen den gehieneko balioa.

- 2) Horrez gain, bizitegi-ahalmenak bi baldintza bete beharko ditu:
 - a) Ezingo du gainditu hirigintza-plangintza onartzean zegoen etxebizitza kopuruaren % 50a.
 - b) Udalerrri orok planteatu ahal izango du hasierako etxebizitza kopuruaren % 10en baliokidea den etxebizitza-ahalmena.
- 3) Hauek ez dute handituko bizitegi-ahalmena:
 - a) Zuzkidura-jarduketetan etxebizitza kopurua edo hirigintza-eraikigarritasunaren gorakada.
 - b) Lurzoru urbanizaezinean kokatutako baserrien banaketa.
 - c) Aurreikusita dauden eta lizentzia baduten baina oraindik eraiki ez diren eraikinak.
 - d) Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian dauden bizitegi-eraikinak birgaitu, ordeztu, berritu edo banatzeko lanen ondorio gisa etxebizitza kopuruan gertatzen den gorakada.
 - e) Merkataritza-lokal gisa erabiltzetik etxebizitza gisa erabiltzera aldatzean sortzen diren etxebizitzak.

Gainera, nahi izanez gero, hirigintza-plangintzan bizitegi-kuantifikazioa egitean kontuan hartuko da landaguneetako ahalmena, eta aplikatzeko arau hauen IV. eranskinean ezarritakoaren arabera bihurtuko da etxebizitza kopurua eraikigarritasun.

5.2. KUANTIFIKAZIOA

• Bizitegi-premiak

Etxebizitza-premien kuantifikazioak sei batugai hartzen ditu kontuan. Lurralde-ereduaren zuzenketen eraginarekin batera, magnitudea ematen dute.

$$NR = CMT + A1 + A2 + B1 + B2 + C1$$

Non:

- CMT:** Lurralde-ereduaren zuzenketak
Udalerrri bakoitzaren osagai zehatz bat da, dagokion eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean ezarritako lurralde orekaren estrategiekin lotuta.
- A1:** Etxebizitza nagusiko premiak, bizi diren biztanleen kopurua aldatu delako.
Aztergai hartutako lurralde eremuan bizi diren biztanleen kopurua aldatzetik (gehiago edo gutxiago) eratorritako etxebizitza nagusiaren premiei dagokie.
- A2:** Etxebizitza nagusiko premiak, familiaren tamaina aldatu delako
Etxebizitza nagusiko premien aldaketari dagokio, aztergai hartutako eremuko familiaren batez besteko tamainaren aldaketaren arabera.
- B1:** Bigarren etxebizitzaren eskaera, etxebizitza nagusiaren eskaera aldatu delako
Aztergai hartutako lurralde eremurako etxebizitza nagusien kopuruaren balioetsitako aldaketarekin lotutako bigarren etxebizitza kopuruaren aldaketari dagokio (A1 eta A2).
- B2:** Bigarren etxebizitzaren eskaera, etxebizitza nagusiaren koefizientea aldatu delako
Bigarren etxebizitzen aldaketari dagokio (gehiago edo gutxiago), bigarren etxebizitzen, nagusien kopuruarekiko, proportzioan izandako aldaketatik eratorrita, aztergai hartutako lurralde eremuan, hau da, CVS koefizientearen emandako aldaketatik eratorrita. Aipatutako koefizientea esplizituki aldatzen ez bada, osagai hau ezdeusa izango da.
- C1:** Hutsik dauden etxebizitzen aurreikuspena okupatutako etxebizitzen kopuruaren aldaketaren arabera
Aztergai dugun lurralde esparrurako kontuan hartutako aldian (A1, A2, B1 eta B2 osagaiak) okupatutako etxebizitzen kopuruarekin lotutako etxebizitza hutsen aurreikuspenari dagokio.

• Bizitegi-ahalmena

Aurreikusitako premietara egokitutako bizitegi-ahalmena kalkulatzeko, harrotze-faktore bat aplikatuko da, plangintzan kalifikatutako lurzoruaren edukiera-ahalmenera egokitu dezan etxebizitza premiei buruzko zifra, kalkulaturako premiak aldian-aldian asetzea bermatzeko. Lortutako emaitzari hutsik dauden eta berreskuratu nahi diren etxebizitzaren kopurua kentzen zaio, bizitegi-ahalmena murrizteko asmoz. Plangintzaren hasieran dagoen bizitegi-parkearen gutxienez % 2ren baliokidean dago kopuru hori.

$$CR = (NR \times ESP) - C2$$

NR: Bizitegi-premiak

ESP: Harrotze-faktorea

C2: Berreskuratu beharreko etxebizitza hutsak (dauden etxebizitza guztien % 2, gutxienez).

• Harrotze-faktorea

Plangintzaren hasierako aldian identifikatutako bizitegi-ahalmena planaren indarraldirako baliotsitako etxebizitza-premien magnitudea nabarmen gainditu behar delako ezarri da harrotze-faktorea.

Proposatuta da gehienez ere 2,2 eta 3 arteko harrotze-faktorea aplikatzea 8 urtetarako zenbatetsitako etxebizitza-premiei, udalerraren tamainaren arabera.

Udalerraren tamaina	ESP
20.000+ biztanle	2,2
7.000-19.999 biztanle	2,4
3.000-6.999 biztanle	2,6
1.000-2.999 biztanle	2,8
1.000 biztanle baino gutxiago	3

• Dauden etxebizitza hutsetako batzuk berreskuratzearen ondorioz bizitegi-ahalmenean aurreikusi beharreko murrizketa (CVD)

Berreskuratu beharreko etxebizitza hutsen gutxieneko kopurua plangintzaren hasieran udalerrian dagoen etxebizitza-parkearen % 2ren baliokidea izango da.

Udalerraren tamaina	CVD
20.000+ biztanle	1,04
7.000-19.999 biztanle	1,05
3.000 - 6.999 biztanle	1,06
1.000 - 2.999 biztanle	1,07
1.000 biztanle baino gutxiago	1,08

• Muga osagarriak

Azkenik, erantsi dira kuantifikazio metodologia hau aplikatu ondoren lortutako emaitzen osagarriko bi baldintzatzaile, proposaturako arauen aplikazio mekaniko batetik erator litezkeen muturreko emaitzak saihesteko.

- Udalerrri guztietarako, bizitegi-ahalmenak ezingo du gaintitu hirigintza-plangintza onartzean zegoen etxebizitza kopuruaren %50a.
- Udalerrri guztiek hasierako etxebizitza kopuruaren %10erainoko bizitegi-ahalmena planteatu ahal izango dute.

• ABIAPUNTUKO DATUAK

Biztanleriaren proiektzioa

2001-2023 aldian, Leioa 27.336 biztanle izatetik 32.214 biztanle izatera pasatu da. 2001etik 2023ra bitarteko urteko hazkunde-tasa hau izan da:

$$TAC_{01-23} = (P_{23}/P_{01})^{1/22} - 1 = (27.336 / 32.214)^{1/22} = \% 7,49$$

2021eko biztanleriari aplikatzen bazaio (biztanle- eta etxebizitza-erroldaren arabera, 31.940 biztanle), 2024an eta 2032an biztanle-kopurua hau izango dela kalkulatu da:

$$P_{24} = P_{21} * (1 + TAC_{01-23})^1 = 31.940 * (1 + \% 7,49)^1 = 32.4550$$

$$P_{32} = P_{21} * (1 + TAC_{01-23})^9 = 31.940 * (1 + \% 7,49)^9 = 34.452$$

Familiaren batez besteko tamaina

Familiaren tamaina kalkulatzeko, 2016. urteko Eustateko datuak erabiliko ditugu, bai biztanleenak, eta bai etxebizitza nagusienak.

Honen TMF01 lortzen da:

$$TMF01 = 27.336 / 9.463 = 2,88872 \text{ biz. /etx.}$$

% 1,2ko urteko murrizketa aplikatuta, planaren hasierako eta amaierako urteko familien batez besteko tamainak lortzen dira:

$$TMF24 = 2,47162$$

$$TMF32 = 2,33614$$

Bigarren bizilekuaren koefizientea

Bigarren bizilekuaren koefizientea kalkulatzeko, 2011ko EUSTATEko datuetan oinarritu gara (biztanle- eta etxebizitza-errolda):

$$\text{erreferentziako urtea} = 2011$$

$$\text{Etx. nagusiak erref. urtean} = 11.165$$

$$\text{Bigarren etx. erref. urtean} = 240$$

$$\text{Etx. hutsak erref. urtean} = 1.093$$

$$\text{Etx. okupatuak erref. urtean} = 11.165 + 240 = 11.405$$

$$CSR = \text{etxebizitza okupatuak} / \text{etxebizitza nagusiak} = 11.405 / 11.165 = 1,0215$$

Leioako udalerrian ez dago bigarren etxebizitzaren proportzio handia, ez baita udaldiko udalerrri bat eta, horrenbestez, lortutako koefizientea ez da LAGek maximo gisa ezartzen duten 1,25etik gorakoa.

Proportzio horrek ez du aldaketa handirik izan datu homogeneoak erakusten dituen 10 urteko aldian. 2001ean, 1,02769 zen koefizientea. Hortaz, urtean % -0,0619 murriztu da.

Proportzio horrek beherakada handi samarra izan du datu homogeneoak erakusten dituen 10 urteko aldian. 2001ean, are handiagoa zen koefizientea, 1,86koa; alegia, bi etxebizitzatik ia bat. Hortaz, urtean % -1,2612 murriztu da.

Planaren bidez, bigarren etxebizitzak etxebizitza nagusi bihurtzeko joera bultzatu nahi da. Beharrezkotzat eta komenigarritzat jotzen da urteko murrizketa hori aplikatzea, bigarren egoitzaren proportzioan.

$$\text{CVS24} = 1,0215 - \% 0,0619 \times 14 = 1,01344$$

$$\text{CVS32} = 1,0215 - \% 0,0619 \times 21 = 1,00849$$

Etxebizitza hutsa

Biztanle kopurua 20.000tik gorakoa denez, CVDn definitutako izaera teknikoa duen etxebizitza mota honetako ehunekoa adierazten duen koefizientea 1,04 da.

Zenbaketan kontuan hartzeko hutsik dauden etxebizitzien gutxieneko kopurua planaren hasierako etxebizitzien % 2 da (2021eko erroldako datuak), eta gure kasuan $13.804 \times \% 2 = 276$ etxebizitza adierazten du.

Harrotze-koefizientea

Udalerriak 20.000 biztanle baino gehiago dituenez, Leioarako kalkuluan erabili beharreko harrotze-koefizientea (ESP) 2,2 da.

Laburpen-koadroa

BIZITEGI LURZORU ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOAREN KALKULUA, LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN ARABERA (2024-2032ko epea) CÁLCULO DE LA CUANTIFICACIÓN DE LA OFERTA DE SUELO RESIDENCIAL, DE ACUERDO CON LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL (periodo 2024-2032)										2
---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	---

Udalerrria:	Leioa
Municipio:	

BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZAREN DATU ESTADISTIKOAK ETA HAIEN BILAKAERAREN HIPOTESIA

DATOS ESTADÍSTICOS DE POBLACIÓN Y VIVIENDA E HIPÓTESIS DE EVOLUCIÓN

Urtea	Biztanleak	Etxebizitza nagusiak	Bigarren mailako etxe.	Jenderik gabeko etxe.	Etxebizitza guztira	TMF	CVS	CVD	Epea	TAC
Año	Población	Viviendas Principales	Viviendas Secundarias	Viviendas Deshabitadas	Viviendas Totales				Periodo	
2001	27.336	9.463	262	883	10.608	2,88872	1,02769	1,09080		
2006	28.592	10.128	0	0	10.128	2,82306	daturik gabe	daturik gabe		
2011	30.426	11.165	240	1.093	12.498	2,72512	1,02150	1,09584		
2016	30.793	11.875	0	0	11.875	2,59309	daturik gabe	daturik gabe		
2021	31.940	-	-			2,52590	daturik gabe	daturik gabe		
2023	32.214						daturik gabe			
2024	32.455				0	2,47162	1,013447401		2001-2023	0,00749
2032	34.452				0	2,33614	1,008494573		TAC ref.	
							Δ CVS	-0,0619%		

KALKULUAN ERABILITAKO OINARRIZKO KOEFIZIENTEAK

COEFICIENTES BÁSICOS USADOS PARA EL CÁLCULO

Familiaren T (TMF) urteko aldaketa <i>Variación anual Tam. M. Famí (TMF)</i>			L. Plan Partzialaren Lurralde Ereduearen ondorioak <i>Implicaciones del Modelo Territorial del PTP</i>		
	-1,2		LPP-aren ondoriozko etxe. Kopurua <i>Nº viv. Resultantes Mod. Terr. PTP</i>		
Bigarren mailako etxebizitzaren koef. CVS <i>Coef. CVS (Viviendas secundarias)</i>		valor de 2011	Biztanleriaren ondorioz harrotze-koefizientea (ESP) <i>Factor de esponjamiento según población (ESP)</i>		
Erreferentzia-koefizientea <i>Coficiente de referencia</i>			-tik (biztanleak)	-ra (biztanleak)	Koef. Coef.
Onartutako koef. Maximoa <i>Coficiente Máx. Admitido</i>			Desde (hab)	Hasta (hab.)	
Jenderik gabeko etxebizitzaren koef. CVD <i>Coef. CVD (Viviendas deshabitadas)</i>					
-tik (biztan.)	-ra (biztan.)				
Desde (Hab)	Hasta (Hab)				
20.000				2,2	
7.000	19.999			2,4	
3.000	6.999			2,6	
1.000	2.999			2,8	
0	999			3	
Erreferentzia-koef. (CVD) <i>Coef. CVD Referencia</i>			Arautegiaren harrotze-koefizientea <i>Factor de esponjamiento normativo</i>		
Arautegiko koef. (CVD) <i>Coef. CVD Normativo</i>					
Jenderik gabeko etxe. Berreskuratzea <i>Recuperación de Viv. Deshabitada</i> (Dagoen etxe-kopurua %a) (Daten etxebizitzaren %)					
2,00%					
			Mugatzaile gehigarriak Limitaciones adicionales		
			1. Beti onartuko den bizitegi-ahalmena 1. Capacidad que siempre es admisible Bertan dagoen etxe-kopuruaren %a % del parque inicial existente:		
				10%	
			2. Onargarria den bizitegi-ahalmenaren maximoa 2. Capacidad máxima admisible Bertan dagoen etxe-kopuruaren %a Hasierako parkearen %:		
				50%	

Plangintzak eskaini beharreko gehieneko bizitegi-ahalmena

Hurrengo taulan, HAP Oren berrikuspen-prozesuan kontuan hartu beharreko azken bizitegi-kuantifikazioaren kalkulua jasotzen da, LPP-BMaren aurreikuspenen arabera (2025).

CMT=-700

BIZITEGI LURZORU ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOAREN KALKULUA, LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN ARABERA (2024-2032ko epea) CÁLCULO DE LA CUANTIFICACIÓN DE LA OFERTA DE SUELO RESIDENCIAL, DE ACUERDO CON LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL (periodo 2024-2032)			1
Udalerría: <i>Municipio</i>	Leioa		Eguna: Fecha:
Eremu funtzionala: <i>Área Funcional:</i>	Bilbao Metropolitano		2025/09/01
LURRALDE PLAN PARTZIALEAN (LPP) EZARRITAKO LURRALDE EREDUAREN ONDORIOAK IMPLICACIONES DEL MODELO TERRITORIAL DEFINIDO EN EL PLAN TERRITORIAL PARCIAL (PTP)			
CMT. LPP-ean ezarritako Lurralde Eremuaren ondorioak <i>Implicaciones del Modelo Territorial definido en el PTP</i>		CMT =	-700
PLANEAMENDU - DENBORALDIAN, BIZITEGI-BEHARRAK NECESIDADES RESIDENCIALES DEL PERIODO DE PLANEAMIENTO			
A.	Etxebizitza nagusien beharrak <i>Necesidades de viviendas principales</i>		
A1.	Biztanleria aldaketaren ondorioz <i>Por variación de población</i> $A1 = (P30 - P22) / TMF30$	A1 =	854
A2.	Familia Batezbesteko Tamainaren (TMF) aldaketaren ondorioz <i>Por variación del Tamaño Medio Familiar (TMF)</i> $A2 = P22 \times (1 / TMF30 - 1 / TMF22)$	A2 =	761
B.	Bigarren mailako etxebizitzaren eskaera <i>Demanda de vivienda secundaria</i>		
B1.	Etxebizitza nagusien (VP) aldaketaren ondorioz <i>Por variación de las viviendas principales (VP)</i> $B1 = (A1 + A2) \times (CVS30 - 1)$	B1 =	13
B2.	Bigarren mailako etxebizitza-koefizientearen (CVS) aldaketaren ondorioz <i>Por variación del Coeficiente de Vivienda Secundaria (CVS)</i> $B2 = (P22 / TMF22) \times (CVS30 - CVS22)$	B2 =	-66
C.	Jenderik gabeko etxebizitzaren aurreikuspena <i>Previsión de viviendas deshabitadas</i>		
C1.	Jenderik gabeko etxebizitzaren (VD) aldaketaren ondorioz <i>Por variación de Viviendas Deshabitadas (VD)</i> $C1 = (A1 + A2 + B1 + B2) \times (CVD \text{ Norm.-}1)$	C1 =	62
EGOITZA-BEHARRAK GUZTIRA NECESIDADES RESIDENCIALES TOTALES			
NR = CMT + A1 + A2 + B1 + B2 + C1		NR =	924
PLANEAMENDUAN ESKAINI DAITEKEEN BIZITEGI-AHALMEN MAXIMOA CAPACIDAD RESIDENCIAL MÁXIMA A OFERTAR POR EL PLANEAMIENTO			
NRe.	Bizitegi-Behar harrotuak = Bizitegi -beharrak x harrotze-koefizientea <i>Necesidades residenciales esponjadas</i> Nre = NR x ESP	NRe =	2.032
C2.	Errekuperatu daitezkeen jenderik gabeko etxebizitzak <i>Viviendas deshabitadas a recuperar</i> C2 = 2% del parque residencial total existente	C2 =	252
CR.	Mugatzaileak aplikatu gabe, bizitegi-ahalmen maximoa <i>Capacidad residencial máxima sin considerar limitaciones</i> CR = (NR x ESP) - C2	CR =	1.780
MUGATZAILE GEHIGARRIAK LIMITACIONES ADICIONALES			
Onartutako bizitegi-ahalmen maximoa (bertan dauden etxebizitza-kopuruaren %50a) <i>Capacidad residencial máxima admisible (50% de las viviendas existentes)</i>		Cmáx =	6.332
Betik aurreikusi daitezkeen bizitegi-ahalmen minimoa (bertan dauden etxe kopuruaren %10a) <i>Capacidad mínima que siempre se puede prever (10% de las viviendas existentes)</i>		Cmin =	1.264
Planeamendu eskaini daitezkeen bizitegi-ahalmen maximoa (etxebizitza-kopurua) <i>Capacidad residencial máxima a prever en el planeamiento (nº de viviendas)</i>		CR=	1.780

Hurrengo taulan ikus daiteke udalen bizitegi-ahalmenaren beheranzko bilakaera, lurraldea antolatzeko hainbat tresnaren arabera:

Etxebizitzaren Kuantifikazioa	Gehienekoa
Bilbo Metropolitarraren LPP (2006)	6.409
2019ko LAG	3.625
LPP Bilbao Metropolitarra (2025)	1.849
HAPOaren berrikuspena	1.780

6. INGURUNE FISIKOARI DAGOKIONEZ HAPO BERRIRAKO PROPOSAMENA

6.1. LURZORU URBANIZAEZINAREN KATEGORIZAZIOA ETA ERABILERAK

Indarrean den plangintzako kategorizazioa berrikustea proposatzen da. Horretarako, sakon aztertzen dira lurraldearen ezaugarriak, indarrean diren lurraldearen antolamendu-tresnetako zehaztapenetara egokitzeko, eta, ingurune fisikoaren helburu eta irizpideei buruzko atalean jasotako helburuetan oinarrituta, jarduketa-ildo hauek ezartzen dira:

- LAGetan proposatutako metodologia aplikatzea ingurune fisikoa aztertzeko, eta lurzoruaren antolamendu-kategoriak lurraldearen ezaugarrien, potentzialtasunen eta mugen arabera garatzea, kategoria bakoitzerako lurzoruen erabilera-erregulazioa ezarrita.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabaeko lurzoruetan erabilerak babesteko eta arautzeko kategoria espezifikoak definitzea, mugatzea, eta, HAPOren bidez, ezartzea.
- Baso-lurzoruak definitzea eta mugatzea, eta haiek erabiltzeko eta okupatzeko dagokion erregulazioa ezartzea.
- Baliabide natural estrategikoen katalogoan iturri eta bilketen inbentarioan sartzeta, eta, gainjarritako baldintza gisa, babes-neurriak ezartzea, beren eragin-eremuan erabilerak eta jarduerak araututa.
- Natura-interes handieneko eremuak definitzea eta mugatzea, eta baliabide natural estrategikoen inbentarioan sartzeta; halaber, haien babesa gainjarritako baldintza gisa ezartzea, eta, hala badagokio, lurzoruaren antolamendu-kategoriaren bidez eta bertako erabilerak araututa.
- Eremu kalteberak definitzea eta mugatzea gainjarritako baldintza gisa hartutako faktore guztiei dagokienez, eta faktore bakoitzerako lurzoruaren erabilera-erregulazio mugatzaile espezifikoak ezartzea.

Hortaz, kategoria hauek ezartzea proposatzen da:

- Babes bereziko zonak
- Ingurumen-hobekuntzako zonak
- Azaleko urak babesteko zonak
- Balio estrategiko handiko landazabaleko zonak
- Landazabaleko zonak, trantsizioko landa-paisaia
- Baso-zonak

Aipatutako kategoriei dagokienez, nabarmendu beha da, aurrerago azalduko dugun bezala, egokitzapen hauek egin direla:

- Babes bereziaren kategorian hostozabalen basoak identifikatzen dira; izan ere, nahiz eta Leioan baso autoktono gutxi egon, azpiegitura berdearen parte dira, eta, LAGetako A.2.a.1 atalaren arabera, "Babes bereziaren kategoria aplikatzen zaie ongi kontserbatutako baso autoktonoei, [...] eta, oro har, ekologiarren, kulturaren, paisaiaren edo horien guztien ikuspegitik baliotsuak diren elementu guztiei".

- Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko kategoria udalerrriaren eskalara egokitzen da. Eragiketa hau egiteko, SIGPAC sisteman jasotako erabileren identifikazioa hartu da abiapuntu gisa (nekazaritza, larreak, etab.); hasiera batean, baztertu egin dira % 12tik gorako maldak (Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan bertan adierazitako irizpidearen arabera), eta haztatu egin da nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera.
- Getxorekiko udal-mugaren eta iparraldeko saihebidetako lurzoru-erreserbaren artean, babes berezikotzat jo ez diren baso-zonak ingurumen-hobekuntzako gisa kategorizatu dira.

LAGetan jasota dagoen ingurumen-arriskuak “prebenitzeko” printzipioa aplikatuz, gainjarritako baldintzak aplikatzen zaizkie kategoria horiei. Baldintza horiek lurzoruaren okupazioari eta erabilerari eragiten dieten zenbait muga gehigarri dakartzate.

6.1.1. BABES BEREZIKO ZONAK (BB)

Kategoria honen barruan, hauek okupatutako lurzoruak sartu dira:

- Baso autoktonoak: artadiak, baso mistoetako hariztiak, harizti azidofiloak eta haltzadi kantauriarra
- Lehentasuneko habitatak. Haltzadi kantauriarra (91E0), Orkideen habitata (6210)
- Hezeguneak
- Interes Geologikoko Tokiak (IGT)

• Ezaugarriak

LAGetan, “Babes bereziko zonetan”, esanbidez bereizten dira naturalismoaren, ekologiaren eta paisaiaren aldetik baliorik handiena duten lurzoruak.

Kategoria hau HAPOan sartu da, lurralde-plangintzan (hots, Bilbo Metropolitanarreko Eremu Funtzionalaren LPPean (2025), ingurune fisikoari buruz ezarritako gidalerroak betez. Leioako eremuan, “babes bereziko” sailkapena duten hainbat lurzoru definitzen ditu LPP horrek.

Kategoria honen barruan, hauek okupatutako lurzoruak sartu dira:

- Baso autoktonoak: artadiak, baso mistoetako hariztiak, harizti azidofiloak eta haltzadi kantauriarra.
- EAEko hezeguneen inbentarioan jasotako hezeguneak: Lamiakoko dartsena (A1B6 (01-02)), Lertutxeko urtegia (EB18) eta Astrabuduako ibarra (B10B1)
- Bisoi europarraren Kudeaketa Planean jasotako zonak.

• Irizpide orokorra

Antolamendu-irizpide orokorra da ahalik eta gehien mugatzea esku-hartze antropikoa, lehengo egoera mantentzeko. Unitate horietako balio ekologikoa eta paisaia-balioa lehentasunezkatzat jotzen da bertako baliabideen aprobetxamenduan. Zonan aprobetxamendua ezarri bada, hura modu jasangarrian sustatu, erabilitako baliabidea berritzen dela eta inguruneke balioak zaintzen direla ziurtatuz.

• Erabileren eta jardueren erregimena

(Ikus erabilera-matrizearen taula)

• Planifikazio-estrategia

Babes bereziko zonen kategoriako erabileren erregulazioa oso zorrotza izan daitekeenez, oso irizpide murrizta aplikatu da udalerriko natura- eta ekologia-balio garrantzitsuenak benetan barne hartzen dituzten eremuak bakarrik hautatzeko.

Garrantzitsua litzateke ziurtatzea natura-interes handiko eremu horiek ingurumenaren aldetik leheneratzen direla eta etorkizunean zaintzen direla. Horretarako, kontuan izan da udalaz gaindiko planen aplikazioari buruzko araudia, baita kasuan kasu aplikagarri den araudia ere.

Baso naturalak babestu, zaindu eta leheneratzeko helburua lortu nahi izan da, basoen tamaina ez ezik haien jarraipena eta lotura ere ziurtatzeko.

Udalak eremu horiek zaintzen eta hobetzen parte hartzeak ingurumen-aberastasun hau zainduko dela bermatu eta bultzatuko du.

- **Nahi den etorkizuneko agertokiaren paisaia irudikatzea**

Babes bereziko zonek itxura naturala eta biodibertsoa agertu beharko dute, babestutako eremu-mota bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera, ingurune horien hobekuntza eta babesa lehenetsiz.

Denboraren joanarekin, ingurumena hobetzeko eta aktiboki kontserbatzeko planek egin dituzten jarduketak ebaluatu ahal izango dira, tokian bertan, aukeratutako adierazleetan oinarritutako emaitzak eskainiz: mantentze-lanak, espezie eta komunitateen presentzia egiaztatua, habitaten egoera ona, natura arrakastaz birsortzea, konektagarritasun-baldintza naturalak hobetzea, afektazioak desagerraraztea eta abar.

6.1.2. INGURUMEN-HOBKUNTZAKO ZONAK (IH)

- **Ezaugarriak**

Kategoria honek degradatutako basoak, sastrakadiak eta bazterreko lurzoru guztiak hartzen ditu barne. Balio handiagoko areen ondoan edo barruan daudenez, onuragarritzat jo da halakoak kalitate-maila handiagoetarantz eboluzionatzea. Batzuetan, ekologia, ingurumen eta/edo paisaia aldetik balio garrantzitsuak izan arren, mota eta maila desberdineko giza aldaketak pairatu dituzte gunehorietan, baina aldaketa horietan itzulgarriak dira.

Kategoria honetan, zaintzarako balio handia edo oso handia duten eremuak sartuko ditugu; besteak beste, harizti azidofiloko baso autoktonoak eta baso misto atlantikoa duten harizti-masak; eremu horiek narriatze-fasean daude, eta, ondorioz, berreskuratu egin behar dira. Ingurumen-balio handiko sastrakek eta zuhaixka-formazioek eratutako sastraka-zonak ere sartzen dira. Haietako batzuk baso autoktonoaren degradazio-egoerakoak dira, eta, kasu gehienetan, ekintza antropikoaren ondorio dira (erre eta moztu). Hala ere, 92/43/EEE Zuzentarauaren barruan Batasunaren intereseko habitat gisa katalogatuta dauden zona horietako batzuek ingurumen-balio handia dute, eta, beraz, egiten diren hobekuntza-jardunek hura mantentzea izan behar dute helburu.

Ingurumen-kalitate ezin hobean ez dauden eta leheneratzeko jardunak behar dituzten ingurune guztiak sartzen dira.

Ekosistemak hobetzeko eremuak eta udalerriko eremu narriatuak biltzen ditu.

- **Irizpide orokorra**

Kategoria horietan esku hartzeko irizpide orokorra kalitate maila handiagoetarantz eboluzionatzeko joera duten jarduerak egitean datza. Eremu horietan leheneratze-lanak egin beharko dira, intereseko ekosistema funtzionalak birsortzeko; gainera, bertako ingurumena berroneratu beharko da, funtsean, kokatuta dauden gunearen ingurumen-balioa leheneratu. Gaur egun nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera tradizionalekin lotuta eta ingurumen-balioetik bereizi gabe erabiltzen diren zona horietan, jarduera horietan ingurumenaren aldetik berreskuratzeko helburuekin bateragarri egitea izango da antolamendu-irizpidea.

- **Erabileren eta jardueren erregimena**

***Ikus erabilera-matrizearen taula.**

- **Planifikazio-estrategia**

Udalerriaren ingurumen-balioak ugariak eta kalitate handikoak dira, baina, kasu batzuetan, ez daude egoerarik onenean; hala erakusten dute aplikagarriak diren udalaz gaindiko planetatik datozen babes-figurek eta antolamendu-kategoriek.

HAPO berrian jaso behar dira, eta behar diren arauak eman beharko dira, gune horiek nahitaez egoki kudea daitezten, udalerrri barruan dauden eremu narriatuen hobekuntzak bermatzeko behar diren jarduketak eginez. HAPOren arabera, ingurumen-hobekuntzan jasotako zonetan, berreskuratze- eta leheneratze-jarduerak egin behar dira, eta haietan baimendutako erabilerak koordinatu, proposatutako leheneratze-helburua erdiesteko.

Eremu horien antolamenduak lehentasuna emango dio haiek eraldatzeari, eta gaur egungo egoera daukan potentzialtasun ekologikotik hurbilago egotera bideratuko da, balio handiagoko oreka ekologikoko beste egoera batzuetara, edo, halakorik ezin bada, gutxienez hura paisaia integrazera.

LPSen bidez zonakatu eta antolatutako espazioei dagokienez, planetan jasotako zuzentarauak beteko ditu HAPOk.

- **Nahi den etorkizuneko agertokiaren paisaia irudikatzea**

Ingurumena hobetzeko kategoriak aplikatzeak ziurtatu beharko du interes naturaleko gunea modu egokian lehenera ekartzea, gizakiaren jardueraren eraginarengatik, degradatu egin delako.

Etorkizun egoki batean, lankidetzak-akordioak ezarriko dira tokiko erakundearen eta ingurumen-organoen artean, eremu horiek behar dituzten kontserbazio- eta hobekuntza-neurriak sustatzeko.

Hobekuntza horietan, ezinbestekoak dira udalaren lanak ingurumen-arloan garrantzitsuak diren gune horiek arrakastaz birsortzen direla ziurtatzeko.

6.1.3. AZALEKO URAK BABESTEKO ZONAK (AUB)

Leioako ibilguak

- **Ezaugarriak**

Azaleko uren babeseko kategoria udalerriko ibaien eta erreken sarearen inguru fisikoa kontuan hartuta definitzen da, azaleko drainatze-sistema naturala babesteko helburuarekin, ubideak eta alboko erriberak barne.

Kategoria hau HAPOan sartuta, LAGen zehaztapena betetzen da, eta ondoren Ibaien eta Erreken Ertzen Antolamenduko LPSaren bidez garatzea ahalbidetzen da.

- **Irizpide orokorra**

Kategoria hau aplikatzea oso garrantzitsua da lurraldeko kudeaketa iraunkorrerako, azaleko uren sistemaren funtzio ekologiko anitzetan nabarmentzen den bezala.

Honako hau da zonalde hauetako esku-hartzetarako irizpidea: ziklo hidrológico naturalen erregulazioa hobetzea da, arrisku naturalak prebenituz, baliabide hidrológicoak babestea, eta ibaien eta ubideen kalitate ekologikoa lehenera ekartzea eta kontserbatzea, Uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak betez.

Erabileren eta jardueren antolamenduaren helburua da ubideak eta erriberak okupatzea edo aldatzea saihestea, urek gainezka egin dutenean edo uholdeak egon direnean eragindako kalteak murriztu ahal izateko.

- **Erabileren eta jardueren erregimena**

***Ikus erabilera-matrizearen taula.**

- **Planifikazio-estrategia**

Azaleko uren babesaren kategoriak balio estrategiko handia dauka inguru naturala lehenera ekartzeko, ziklo hidrológicoa kontrolatzeko eta lurraldeko uraren kalitatea babesteko.

Lurralde osotik zehar hedatzeari esker, lehen mailako korridore ekologikoaren zereginaren alde egiten da, eta era horretan, goi zonaldeak eta haranaren eta kosta eta barrualdearen arteko konektibitate naturala gauzatu daiteke. Erriberako haltzadia (lehentasunezko intereseko habitata) kategoria honen esparruarekin zuzenean lotutako begetazio eraketa da.

Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo LPSko zehaztapenez gain, hainbat arau hartu behar dira barnean, besteak beste: Uraren Esparru Zuzentaruaren zehaztapenak eta EAeko Ibaien Jarraipen Plana, baita eremu horien kudeaketa iraunkorrerako oinarritzko plangintza estrategikoaren dokumentuak ere.

• Nahi den etorkizuneko agertokiaren paisaia irudikatzea

Azaleko uren babesaren kategoria aplikatzeari da eta hura lehenera ekartzeko osagarritzko neurriak garatzeari esker, ibaien sistema osatzen duten ibai eta errekek lehenera ekarri ahal izan da.

Haltzadien ibaiartzeko landaredia (lehentasunezko intereseko habitata) ur-ibilguz jarraituz zabaldu da, eta benetako igarobide naturala da, zeinak elkarri lotzen baitizkio lurraldeko eremuak; laboreen artean mantentzen da, eta baso babesleeta hostozabalen baso mistoekin uztartzen da.

6.1.4. BALIO ESTRATEGIKO HANDIKO LANDAZABALEKO ZONAK (C.1)

• Ezaugarriak

Kategoria honekin, lehentasun-ordena ezarri nahi da nekazaritzako intereseko lurzoru onenak zaintzean.

Balio handiko landazabalaren kategoriak babes handiagoko erregulazioa du, eta antzekotasun handiak ditu Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren aurrerapenean proposatutako balio estrategiko handiko lurzoruen kategoriarekin.

Kategoria honetan, erabilera agronomikoko ahalmen handiagoa duten lurzoruak sartu dira.

Hona hemen lurzoru horien interesaren balorazioan eragina duten alderdiak:

- Ibar alubialeko lurzoruak (flubisolak); topografia lauan gaitasun agrologiko “oso handia” izatea ezaugarri dute, baina haiek zaintzeko interesa indartzen duten beste ezaugarri batzuk ere badituzte, hala nola uholde-arriskua eta ibai-sistemaren maila freatikorekin erlazionatuta dauden ohiko istiltzeak. Batzuetan, ihitoki-larreen fisonomian ikusten da hori, fauna eta flora basatientsat natura-intereseko habitat gisa hartua.
- Nekazaritzako intereseko lurzoruak, kanbison kromikoen eta eutrikoen unitate edafologikoetan daudenak, malda leunetako (-% 5) leku topografiko mesedegarrietan daudenean. Kasu horietan, lurzoru horiek babesteko interesa agrologikoa da soil-soilik.

• Irizpide orokorra

Eremuak kategoria horren bidez antolatzekeo irizpidea lurzoria nekazaritza eta abeltzaintzako produktibitateko baliabide natural estrategiko gisa zaintzeko lehentasuna indartzea da, eta lurzoria modu konponezinean narriatzea edo galtzea dakarten okupazio- eta erabilera-moduak saihestea.

• Erabileren eta jardueren erregimena

***Ikus erabilera-matrizearen taula.**

• Planifikazio-estrategia

Nekazaritza-intereseko lurzoru horiek balio handiko landazabalaren kategoria erabiliz zaintzea lehentasunezko helburua da Leioako udalerriko baliabide naturalen kudeaketa jasagarritzko estrategian.

Hala ere, nekazaritza eta abeltzaintzako jardura sustatzearekin batera garatzeko beste neurri osagarri batzuk aplikatu behar dira, Landa Garapenekeo Euskal Planaren jardura-ildoei jarraituz eskualde- nahiz toki-mailan.

Balio agrologiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako lurzoruen osotasunean eragindako afektazioak baliabidea leheneratzeko konpentsazio-neurrien xede izango dira.

- **Nahi den etorkizuneko agertokiaren paisaia irudikatzea**

HAPOren antolamendua aplikatu zenetik igarotako denboraren ondoren, dagoeneko ikus daitezke aldaketa batzuk udalerriko landazabalaren paisaian. Erabileren erregulazioak lurzorua okupatzeko nahi ez ziren prozesuak geldiarazi ditu; esaterako, bizitegi-eraikuntza eta bestelako batzuen hedapen indiskriminatua, haietako batzuk ustez nekazaritza-jardueretara lotuak.

Balio estrategiko handiko landazabalean, nekazaritzarako ahalmen handiagoa duten lurzoruetan, baratze-erabilerak eta ingurumenaren aldetik modu jasangarrian kudeatutako laboreak dira nagusi, zeinak gai baitira elikagai osasungarriak eta kalitate onekoak ekoizteko, hurbileko merkatu bat hornitzeko.

Ibar alubialetan, nekazaritza- eta ingurumen-neurri osagarri batzuk ezarri dira eremu zabalak uholde-lautada gisa erabiltzeko eta, horrela, beti hor dagoen arrisku natural hori arintzeko. Abeltzaintzarako erabiltzen diren ihitoki-larreen habitatak bere horretan mantentzen dira istiltzeko joera duten zenbait zonatan, zeinak estuki lotuta baitaude ibaiertzeko haltzadiekin eta ibaien inguruko hezeguneekin. Ibarretako lurzoru horietan, jada ez dira betelan eta drainatze indiskriminatuak egiten.

6.1.5. LANDAZABAL-EREMUAK, TRANTSIZIOKO LANDA-PAISAIA (LZ.2)

- **Ezaugarriak**

Kategoria honetan, gaitasun agrologikoa duten eta, beraz, nekazaritza eta abeltzaintzaren ekoizpen-erabileretarako ahalmena duten lurzoruak dituzten areak sartzen dira. Oro har, kategoria horretan sartzen da euskal landazabal atlantikoaren paisaia osatzen duen, eta, gaur egun, udalerriko magaletako behe zonaldean eta ibaietako haranetan nabarmentzen den nekazaritza-azalera erabilgarria (NAE).

Nahiz eta kultura-zaintzen tradizio luze bati esker hobetuak, kategoria horretako nekazaritza-lurzoruek erabileragaitasun ertaina dute (neurritzkoa, txikia eta oso txikia). Kanbisol motei dagozkie (eutrikoak, humikoak, gleikoak eta kromikoak). Askotariko litologietan garatuta egon arren, nekazaritzako erabilerari murrizten duten hainbat faktore geomorfologiko daude guztietan (maldak, intsolazioak, lodiera, emankortasuna, eta abar).

Haiek mugatzeko, Nekazaritzako eta Basogintzako LPSa hartzen da abiapuntu gisa, baina HAPOaren eskala-mailak hainbat aldaketa egitera bultzatzen gaitu, xehetasun handiagoa baitu.

- **Irizpide orokorra**

Lurzoru hauek antolatzeko irizpide orokorra NAEko uneko hedadura eta hura eusten duen landa paisaia babestea da, lurraldeko gaitasun agrologikoa mantenduz, berezkoak zaizkien nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera iraunkorrek garatzen ahal izateko, eta baita ere bateragarriak eta osagarriak diren beste jardueren erregulazioa, baldin eta landazabaleko landa paisaiaren gizatiartutako ekosistemen babesa ziurtatzen badute.

Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerari ekoizpeneko basogintza erabilerak menperatu beharko zaizkio eta bereziki mugatuko dira balio agrologiko handia duten nekazaritza lurzoruak okupatzen dituzten azpiegiturak urbanizatzeke eta ezartzeko prozesuak.

- **Erabileren eta jardueren erregimena**

***Ikus erabilerari-matrizearen taula.**

- **Plangintza-estrategia**

Nekazaritza eta Abeltzaintzako Landazabaleko kontserbazioa paisaiaren funtzionamendu ekologikoaren osoko ikuspegitik ulertu behar da, eta nekazaritza lurzoruak baliabide natural estrategiko gisa babesteko jarduera hartzen du barne, baina, horrez gain, harekin lotutako ziklo naturalak, baso bizitza eta ondare etnografikoa ere.

Kategoria honetako lurzoruak nekazaritza eta abeltzaintza garatzeko lehentasunezko eremuak dira, eta, era berean, lurraldean gehien erabiltzen diren nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak barne hartzeko erabiltzen dira, betiere, natura-ondarea eta kulturaren eta paisaiaren balioak kontserbatzeko prozesuarekin bateratzeko moduan.

Hala ere, lurzoruari zuzenean lotutako babesaz gain, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera sustatzearekin batera garatzeko beste neurri osagarri batzuk aplikatu behar dira, Landa Garapeneko Euskal Planaren jarduera-ildoei jarraituz eskualde nahiz toki mailan, baita Nekazaritza eta Elikadurako Politikari buruzko Lege berria aplikatuta ateratzen direnei jarraituz ere.

Balio handiko nekazaritza eta abeltzaintzako lurzoruen osotasunean eragindako afektazioak baliabidea leheneratzeko konpentsazio-neurrien xede izango dira.

Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala goialdeetako baso-eremuen eta haran hondoko ibai-sistemaren artean dagoenez fisikoki, kontserbazio-estrategiak konektibitate-elementu naturalak mantentzea hartu beharko du kontuan: bereziki, heskaiak eta zuhaitziak, ezpondak eta ubide txikien ertzak, etab. babestu eta lehengoratu.

Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabalak landa-turismoko eta erabilera publikoko jarduerak hartzen ditu txoko berezien inguruan eta tokiko bide zaharrak pixkanaka berreskuratuta.

Herrialdeko beste eremu batzuetan bezala, nekazaritza eta abeltzaintzako zuzeneko jarduera garatzen ez duten nekazaritza-lurzoruaren jabeen ehunekoak zein den kontuan hartuta, aipatutako finken etorkizunari buruzko auzia planteatzen da, eta bi prozesu osagarri eragin ditzake: alde batetik “landa-lorezaintza neutralizatua” mantentzeko zerbitzuen eskaera handia sortzen du, eta jarduera ekonomikoan aritzeko aukerak eman diezazkie tokiko nekazaritza-profesionalei; bestalde, finka onenak erabil litezke, etorkizuneko lur-bankuen bidez, sektorean hasitako nekazari berrien ustiapen berriak eratzeko.

- **Nahi den etorkizuneko agertokiaren paisaia irudikatzea**

Landazabaleko nekazaritza lurzoru emankorraren azalerak murrizteari utzi dio HAPOa ontzat eman zenetik, erregulazioa aplikatzearen ondorioz, neutralizatu da iraganaldiko urbanizazio progresibo zehaztugabea eta udaleko lurralde batzordeek gauzak honela antolatzea zaintzen dute.

Lurzoruaren merkatua distortsionatzeko aukerak gelditu dira, eta era horretan, lurzoruaren balioa nekazaritzako ekoizpenaren errealitateari gerturatu zaio. Zio honek, tokiko taldeek, udalaren laguntzarekin, sustatutako bestelako laguntzazko neurriekin batera, eta Landa Garapeneko Planen babesarekin, sektorean inkorporazio berriak eragiteko aukera berriak sortzen ditu.

Landazabalaren paisaian, abeltzaintzako belardiak dira nagusi, baina badira beste labore bideragarri batzuk ere: txakolina, fruta-arbolak, abilezia-laboreak, berotegiak, haztegiak, etab. Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenak kalitate oneko produktuak merkaturatzen ditu, kontsumo-guneetatik hurbil landatuak. Nekazariak ez diren jabeen eta jarduera gauzatzen duten nekazarien artean akordio-harremanak sortu dira belardiak erabiltzeko eta mantentzeko.

Pixkanaka, errespetatzen ari dira, eta baita sustatzen ere, landazabaleko ekologia eta paisaia kalitatea hobetzen duten heskaien eta zuhaitzien bazterreko eraketak.

6.1.6. BASO-LURZORUEN ZONAK

Baso-lurzoruen antolamendu-irizpide orokorra da lurraldearen kudeaketa jasangarriak eskatzen dion funtzio ekologikoa, produktiboa eta soziala betetzeko gai den zuhaitz-estalkia areagotzea eta hobetzea.

- **Ezaugarriak**

Kategoria honek lurzoruaren bokazio naturalagatik eta beste erabileretarako dituen mugengatik basogintzarako erabileretarako ahalmen argia daukaten areak definitzen ditu.

Kategoria hori baso-landaketei dagokie, baso naturalak babes bereziko kategorian jasota geratu baitira. Pinua edo eukalipto kudeaketa jasangarrirako mugak dituzten lurretan jarri ohi dira (% 35etik gorako malda handiak, higadura-arazoak, ziklo hidrológicoaren babesa). Halako basoberritzeak babes bereziko kategorian sartu dira, baso naturalen presentzia eta konexioa indartzeko.

Haiek zehazteko, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSa, landa-bisitak eta ortoargazkien laguntza hartu dira kontuan, Nekazaritza eta Basozaintzako LSPak baso naturalak eta espezie exotikoekin egindako basoberritzeak sartzen baititu basoen kategorian, eta beharrezkoa zen biak bereiztea.

Kategoria hau definitzen da ekoizpenerako gaitasun handiagoak dituzten baso lurzoruak antolatzeko, gehienak, gaur egun, basogintza ustiaketarako erabilia eta konifero eta eukaliptoko espezie exotikoen landaketek okupatuta.

Lur horiek batez ere udalerraren iparraldean daude, malda arinetan, lotutako arrisku naturalak saihesteko.

• Irizpide orokorra

Kategoria horren antolamendu-irizpide orokorra modu intentsiboan ustiatzeko gaitasuna duen baso estalki bat sustatzea eta mantentzea da, nahiz eta Euskal Basogintzako 1994-2030eko Planaren helburuen eta jarduera-ildoen araberrako kudeaketa iraunkorreko irizpideak barne hartuz izan (eranskina).

• Planifikazio-estrategia

Kategoria hori erabilia, ekoizpeneko basogintza ustiatzeko gaitasun handiagoa duten eremuetara egokitzen da espezie exotikoko sailen banaketa (radiata pinuaren eta eukaliptoaren sailak), eta horrenbestez, basoko lurzoria libre utz daiteke ingurumena eta ingurumen-baliabideak kontserbatzeko lanetarako, basogune gisa kalifikatuz.

Lurzoria babesteaz gain, barruti bakoitzerako kudeaketa plan zehatzak eduki behar dira. Baso-sailak direnez, Euskal Basogintzako Planaren arauak (eranskina) eta BFAko Mendien Foru Araua aplikatu beharko zaizkio antolamenduari.

Lurzati gehien titulartasuna jabetza pribatukoa da, eta horrek erabat baldintzatuko ditu etorkizunean kudeaketa iraunkorreko planak garatzeko egin behar diren akordioak.

Area horiek antolatzeko erronka handiena gaur egungo ustiapen intentsiboko teknikak egokitzea da; izan ere, ingurumen-arriskuak ekar ditzakete. Hori horrela, iraunkortasuna sustatzeko eta ingurumena zaintzeko irizpideak hartu behar dira barnean, Euskal Basogintzako 1994-2030eko Planak zehaztu bezala. Ildo horretan, komeniko litzateke Baso Kudeaketa Jasangarriko Planak orokortzea, borondatezkoa soilik izango ez den konpromiso baten bitartez.

• Nahi den agertokiaren paisaia irudikatzea

Ekoizpeneko baso-eremuen azalera murriztagoa da, beste garai batzuetan zegoenaren aldean, baina ekoizpen-maila egokia dute oraindik, eraginkortasun handiagoarekin biltzen dituztelako Euskal Basogintza Planak sustatutako neurriak.

Basoko jabeen taldeak basogintza sustatzeko jarduketak optimizatzen lortu du eta Basogintzako Kudeaketa Iraunkorreko Planak aplikatzeko konpromisoa hartu du gain eta horrenbestez, basogintza administrazioak lehenatasuna emango dizkie sektorerako laguntzei, kategoria honen lurzoruen aurrean.

Pixkanaka, lurraldea prestatzeko teknikak lurzoruaren kontserbazioarekiko eta ziklo hidrologikoen babesarekiko lasaiago bihurtu dira.

Landaketek espeziak orekatzen dituzte, horretarako koniferoak erabiliz, txandak luzatu dira, eukaliptoen azalera maila egokietan mantentzen da, eta, bere osotasunean, basogintzako antolamenduko planek neurri desberdinak hartu dituzte barne, ekonomia eta ekoizpen helburuak mendietako gizarte eta ingurumen onuragarriekin bateratzeko. Horregatik, altxor publikoko laguntzak ustiaketa partikularrei eman dakizkieke.

Suteak prebenitzeko neurriek interes berezia dute, uztartutako teknika desberdinak erabiliz.

Kasu batzuetan, abereak sartzen dira mendian, eta, ondorioz, errazagoa da pinu-beldarra naturalki kontrolatzea, oihanpean landare-ekaia ezabatzea, eta erabilera publikoa hartzeko gaitasuna handitzea.

6.2. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDU-MATRIZEA

Hurrengo taulan jaso da aurreko atalean zehaztutako askotariko antolamendu-kategoriekin erlazionatutako erabilera- eta jarduera-erregimenari dagokionez HAPO berriak egiten duen proposamena:

Artikulu honetan jasotako antolamendu-matrizean arauketa grafikoki adierazten da egon daitezkeen erabilerak eta jarduerak (horizontala) eta lurzoru urbanizaezinaren kategoria desberdinak (bertikala) erkatuz.

Elkargune-gelaxo bakoitzean antolamenduaren baldintzak adierazten dira, sinbolo hauen bidez:

- 1- Erabilera sustatua, lursailaren kudeaketa jasangarrirako ondorio positiboa duela uste delako eta lurzoruaren bokazio naturalarekin oso erlazionatuta dagoelako.
- 2- Erabilera onargarria, lurzoru horien kudeaketarekin bateragarria eta osagarria dela uste denean. Baimengarria izateak esan nahi du erabilera edo jarduera garatzeko baldintzak ezartzen dituen aurretiko prozedura bat bideratu behar dela.
- 3- Erabilera debekatua, lurzoruaren bokazioarekin eta lurraldearen kudeaketa jasangarriaren helburuekin bateraezina dela uste denean.

* EAEko Lurralde Plangintzako beste dokumentu batzuen bidez arautu beharreko erabilerak.

Garapen-plangintza:

- 2¹ Nekazaritza eta Basozaintzako LPS
- 2* Nekazaritza eta Basozaintzako LPS, trantsizioko landa-paisaian; debekatuta balio estrategiko handian
- 2² Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSa, plan hidrológicoak
- 2³ NBAP, Urdaibaiko EKZP, KBE, Hezeguneen LPS, Itsasertzari buruzko LPS
- 2⁴ Baimendutako erabilerak gauzatu ahal izateko, lurzoruaren kalitateari buruzko aurretiko adierazpena aurkeztu behar da, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz

Lurzoru urbanizaezineko erabilerak eta jarduerak zuzenean antolatzeko modu hau EAEko Ingurumena Babesteko Legetik ondorioztatzen diren beste araudi batzuekin osatzen da; esaterako, ingurune naturaleko proiektuetarako ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, eta sailkatutako jarduerak ezartzeko baldintza teknikoak.

Proiektu tekniko horiek xehetasunez egin dira lurrian, eta, haietan, kontuan hartu behar dira tokiko jardueraren esparruari eragiten dioten natura babesteari buruzko konpromiso partikularrak, lurzatiari egokitzen zaion lurzoru urbanizaezineko antolamendu-kategoria edozein dela ere.

Horren osagarri, esku-hartze potentzial bakoitzaren proiektu teknikoari aplikatu behar zaizkion babes-neurriak, neurri zuzentzaileak eta osabidezkoak ondorioztatuko dira ingurumen-inpaktuaren ebaluazioetatik.

INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDU-MATRIZEA	ANTOLAMENDU-KATEGORIAK						
	Babes berezia	Azaleko uren babesa	Ingurumen-hobekuntzako zona	Basoak	Nekazaritzakoa eta landazabala: balio estratejiko handia	Nekazaritzakoa eta landazabala: Trantsizioko landa-pausaia	erazketa-jarduerak
ERABILERA ETAK JARDUERA							
Natura zaintzea eta birsortzea							
kontserbazioa	1	1	1	2	2	2	(*)
Ingurumen-hobekuntza	1	1	1	2	2	2	(*)
Jarduera zientifiko eta kulturalak	1	1	2 ⁴	2	2	2	(*)
Habitat naturalen leheneratzea	1	1	1	1	1	1	(*)
Aisia							
Xendazaletasuna eta naturaren behaketa	2 ³	2	2 ⁴	2	2	2	(*)
Olgeta intentsiboa (piknika)	3	2 ²	2 ⁴	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Kanpalekua / Karabanak	3	3	3	3	3	3	(*)
Bainua eta itsasketa-jarduerak	3	2	2 ⁴	3	3	3	(*)
Ehiza	2 ³	2 ²	2 ⁴	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Arrantza	2 ³	2 ²	2 ⁴	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Ibilgailu motordunekin landan zehar ibiltzea	3	3	3	3	3	3	(*)
Golf-zelaiak	3	3	3	3	3	3	(*)
Lehen sektoreko baliabideen ustiapena							
Landare-espezie basatien bilketa	2 ¹	2	2 ⁴	2	2	2	(*)
Nekazaritza	3	2 ²	3	2 ¹	1	1	(*)
Nekazaritzarekin erlazionaturako eraikuntzak	3	3	3	3	2	2	(*)
Berotegiak	3	2 ²	3	3	2 ¹	2 ¹	(*)
Nekazaritza-industriak	3	3	3	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Abeltzaintza	2 ³	2 ²	2 ⁴	2 ¹	1	1	(*)
Abeltzaintzarekin erlazionaturako eraikuntzak	2 ³	2 ²	2 ⁴	2 ¹	1	1	(*)
Baso-ustiapena	2 ³	2 ²	2 ⁴	1	2*	2*	(*)
Erazketa-jarduerak	3	2 ²	2 ⁴	2	2	2	(*)
Nekazaritza-erabilerarekin erlazionaturako erabilera tradizionaleko instalazio txikiak	3	3	2 ⁴	2	2	2	(*)
Azpiegiturak							
Garraiorako bideak	3	2 ²	2 ⁴	2	2	2	(*)
Aireko lineak	2 ³	2 ²	2 ⁴	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Lurpeko lineak	2 ³	2 ²	2 ⁴	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
A motako zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoak	3	2 ²	3	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
B motako zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoak	2 ³	2 ²	2 ⁴	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Landa-bideak eta pistak	3	3	2 ⁴	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Parke eolikoak	(*)	(*)	2 ⁴	(*)	(*)	(*)	(*)
Obra-hondakindegia eta zabortegeak: soberakinen gordailuak, obra zibiletik etorritako arroka-betegarriak	3	3	2 ⁴	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Obra-hondakindegia eta zabortegeak: aurrekoan sartzen ez diren beste batzuk	3	3	2 ⁴	3	3	3	(*)
Hirigintza-garapenak							
Lehendik zeuden nukleoetan oinarritzen ez diren hirigintza-hazkundeak	3	3	3	3	3	3	(*)
Lehendik zeuden nukleoetan oinarritutako hirigintza-hazkundeak	3	3	3	2 ¹	3	3	(*)
Eraikuntza-erabilerak							
Onura publikoko eta gizartearen intereseko eraikinak	2 ³	2 ²	2 ⁴	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Bizitegi isolatua	3	3	3	3	3	3	(*)
Nekazaritzako ustiategiari lotutako bizitegi isolatua	3	3	3	2 ¹	2 ¹	2 ¹	(*)
Instalazio arriskutsuak	3	3	3	3	3	3	(*)

6.3. GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Hiru taldetan banatu dira identifikatu diren gainjarritako baldintzak:

- A. Azpiegitura berdearen gainjarritako baldintzak
 - Intereseko beste habitat batzuk: Belardiak (6510), txilardia (4030)
 - Hezeguneak
 - Paisaia-intereseko eremuak
 - Fauna-intereseko eremuak: Bisoia europarra
 - Espazio libreen eta berdeguneen sistema orokorra (Artatza parkea, Pinosolo)
- B. Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren gainjarritako baldintzak
 - Uholde-eremuak
 - Akuiferoen kalteberatasuna
 - Arrisku geologikoak
 - Baso-suteak
 - Klima-aldaketaren inguruko kalteberatasun-indizeak
- C. Gainjarritako beste baldintza batzuk
 - Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruek
 - Zarata
 - Interes Geologikoko Tokiak (IGT)

6.3.1. AZPIEGITURA BERDEAREN GAINJARRITAKO BALDINTZAK

- Intereseko beste habitat batzuk: Belardiak (6510), txilardia (4030)

Ezaugarriak

92/43/EEE Zuzentauaren bidez, Europar Batasunak bai habitat naturalak eta bai basoko flora eta fauna babesteko erreminta bat lortu nahi izan du. Natur Ondare eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legearen bidez, zuzentarau hori Espainiako ordenamendu juridikoan txertatu da guztiz, eta I. eranskinean interes bereziko habitatak eta lehentasunezkoak izatea ala ez aipatzen du. 42/2007 Legeaz gain, Batasunaren intereseko habitatak babestean, 33/2015 Legea ere bete behar da, irailaren 21ekoa, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzen duena. baita 9/2021 Legea ere, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa.

Irizpide orokorra

Antolamendurako irizpide orokorra kontserbatzean datza eta degradatutako egoeran aurkituz gero horiek berreskuratzeko jarduerak sustatu beharko liriateke.

Leioan, lehentasunezkoak ez diren habitatak dira nagusi.

Eremua udalerrian

Hona hemen udalerrian dauden habitatak:

Lehentasunik ez duten habitatak:

- 4030 Europako txilardi lehorrak. Habitat gehienak Getxoko udalerriarekiko mugan dauden, Leioaren iparraldean.

- 6510 Altitude txikiko sega belardi pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*). Udalerri osoan barrena aurki daiteke; habitat zabalduena da.

Lehentasunezko habitatak:

- 91E0* Haltzadiak eta lizardiak. *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak. Oso eremu txiki batean dago udalerraren iparraldean, Erandioko udal-mugartearekiko mugan.
- 6210* Belardi lehorrerdi-naturalak eta sastraka-fazieak kare-substratuen gainean (Festuco-Brometalia) (*inguru hauetan orkidea ugari daude). Habitat honen "orban" txikiak daude udalerraren hegoaldean.

Planifikazio-estrategia

Araudi aplikagarria betetzea: 92/43/EEE Zuzentaraua; 42/2007 Legea, abenduaren 13koa; 33/2015 Legea, irailaren 21ekoa; 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa.

- **Hezeguneak**

Ezaugarriak

Beren ezaugarri naturalengatik edo natura-intereseko etorkizuneko espazio gisa duten aukeragatik babes-figuraren bat duten espazio edo elementuak dira. Babes-figura horrek hein handiagoan edo txikiagoan ezarriko du nola kudeatu behar den espazioa, eta zer araudi bete behar den, espazioak ala elementuak izan.

Irizpide orokorra

Ingurumenaren aldetik dituen balioak eta garrantzia kontuan hartuta, irizpide orokorrak mantentzea eta kontserbazioa izango dira, eta, beharrezkotzat joz gero, ingurumen-hobekuntza. Dauzkaten kudeaketa-araudia edo -tresnak betetzea.

Eremua udalerrian

Leioan, hiru hezegune daude: Astrabuduako ibarra, Lamiakoko dartsena eta Lertutxeko urtegia.

Planifikazio-estrategia

Espazio horietako bakoitzaren babes-tresnek ezartzen dutena beteko da. Astrabuduako ibarrak udalerriko eremu txiki bat hartzen du. Hezeguneen LPSaren bidez kudeatzen da, eta Hezeguneen Inbentario Nazionalan (INZH) eta EAEko Hezeguneen Inbentarioko 2. taldean jasota dago. Lamiakoko dartsena eta Lertutxeko urtegia III. taldeari dagozkie, eta EAEko Hezeguneen Inbentarioan jasota daude. Udalerriak kudeatuko ditu.

- **Fauna-intereseko eremuak. Bisoi europarra**

Ezaugarriak

Hein handiagoan edo txikiagoan mehatxatuta dauden edo berezitasunagatik edo ingurumenerako garrantziagatik interes bereziren bat duten fauna-espezieak hartzeko aukera duten eremuak dira.

Batzuetan, populazioa mehatxatuta edo arrisku-egoeran daukaten fauna-espezieak izan ohi dira. Espezie horiek kudeaketa-planen bat dute lurraldean, eta plan horretan jasotzen dira kasu bakoitzean bete beharreko araudia eta irizpideak.

Irizpide orokorra

Espezierako egokia den habitataren kontserbazioa edo ingurumen-hobekuntza. Komeni da konektagarritasuna handitzea; zona hauetan, igarobide ekologikoen edo azpiegitura berdearen bidez jarraitutasuna ematea izango da irizpidea.

Eremua udalerrian

Udalerriko ibilgu guztiak hobekuntza-eremutzat hartzen dira bisoi europarrari dagokionez. Espezie horrek kudeaketa-plan bat du Bizkaian.

Planifikazio-estrategia

Kudeaketa-planak biltzen dituen arauak eta irizpideak bete behar dira. Halaber, aipatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko hegazti-fauna goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko babes-eremu bat dagoela, hurrengo irudian ikusten den bezala, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez (Agindua, 2016ko maiatzaren 6koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena. Honen bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasuneko eremuak mugatzen dira, eta hegazti-faunaren babes-eremuak argitaratzen, non 1432/2008 Errege Dekretuko goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira). Babes-eremu hori udalerrriaren ipar-mendebaldean dago, eta bat dator “KOSTALDEA-PLENTZIA-BOLUE-LEMOIZ-JATA” izeneko sektorearekin, Getxoko udalerrian dagoen Bolueko hezegunean hasten dena.

- Espazio libreen eta berdeguneen sistema orokorra (Artatza parkea, Pinosolo)

Ezaugarriak

Ingurumen-balioak dituzten udal-espazio libreen sistemak biltzen dituzte. Balio horiek, kasu honetan, zuhaitzidantsitate handia dira; zuhaitzi horiek, kasu askotan, udalerriko landaredi potentziala irudikatzen dute, eta, beren azalera eta egoeratik, zeregin garrantzitsua izan dezakete konektore ekologiko gisa.

Irizpide orokorra

HAPOk espazio libreetarako biltzen dituen irizpideei jarraituko diete. Irizpide horiek aukera eman behar dute aisialdirako erabiltzeko eta zuhaitziak mantentzeko.

Eremua udalerrian

Leioan, Artatzako parkean eta Pinosolon ardatzen da, nagusiki.

Planifikazio-estrategia

Aisialdirako erabiliko da batez ere, konektore ekologikoa den heinean.

6.3.2. ARRISKU NATURALEN ETA KLIMA-ALDAKETAREN GAINJARRITAKO BALDINTZAK

- Uholde-eremuak

Ezaugarriak

Baldintza horrek haranaren hondoa dauden lurzoruei eragiten die; hau da, ibaietako ertzen ondoan, uholde-lautaden espazio naturalean, baldin eta, arro hartzailearen eta prezipitazio-erregimenaren ezaugarriak direla eta, urez gainezka egiteko arriskua badago, ohiko gehieneko uholdeetan eta errepikatze-denboretan oinarrituta.

Baldintza hori zehazteko, EAEko uholde-arriskuen azterketak hartzen dira kontuan. Uraren Euskal Agentziak egiten ditu azterketa horiek (URA).

Irizpide orokorra

Baldintza hori lurzoru urbanizaezinen antolamenduan sartu da ibai-sistemaren funtzionamendu zuzena bermatzeko, emariak etetea saihestuz, erriberak eta uholde-lautadak okupatuz, eta arro hartzailea ondo mantenduz (baso babesgarriak), ondasunei eta pertsoneri kalterik ez egiteko.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko 2015-2021 aldiko Plana da gerta litezkeen uholdeen arazoak kontrolatzeko eta ezagutzeko oinarrizko dokumentua.

Eremua udalerrian

Udalerrriaren barruan, uholde-arriskua duten eremuak Gobela eta Udondo ibaien inguruan kokatzen dira, hain zuzen ere Nerbioi-Ibaizabaleko itsasadarren bokaletik hurbil hirigunea baino beherago dagoen zatian. Udondo

ibaia ere baditu uholde-arriskua duten zona batzuk Lertutxeko urtegiko irteeran, Dow Chemical-en instalazioak zeuden zonan eta Elexalde erreka inguruan.

Planifikazio-estrategia

Eremu hauetako esku-hartze araubidea izango da Ibai eta Erreken Ertzetako LPSko Aldaketan ezarritakoa. Horregatik, uholde-arriskua duten eremu gisa sailkatutako lurraldeetan, antolamendu-araudian uholde-arriskuaren baitako lurzoru-erabilerari buruz jasotako artikulua aplikatu dira.

Era berean, jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten HAPO honen jarduketek, zortasun- edo zaintza-eremuetan kokatzen badira eta uholdeak izateko arriskua baldin badute, URA Uraren Euskal Agentziaren administrazio-baimena beharko dute aurretik.

- **Akuiferoen kalteberatasuna**

Ezaugarriak

Akuiferoen kalteberatasunak neurtzen du lurraldeko substratuak egon daitezkeen lurpeko akuiferoak kutsatzeko duen sentzibilitatea, hainbat jardueren eraginez, isuriak sortuko balira.

Zonalde hauek zeintzuk diren kontuan edukitzeko, EEEren EAEko akuiferoen kalteberatasun-arriskuen maparen irizpideei jarraitzen zaie. Mapa honek ezaugarri hidrogeologikoak, litologikoak eta geomorfologikoak sintetizatzen ditu.

Irizpide orokorra

Nahiz eta gaur egungo xedapenek bitarteko motako kalteberatasuna duten zonaldetarako neurri berezirik hartzea ez behartu, komenigarria da udalerrian daudela jakitea eta aipatutako zonaldetean lurzoruak kutsatu ditzaketen azpiko akuiferoa libiatzen duten erabilerak eta jarduerak kokatzea saihestea.

Eremua udalerrian

Udallerriaren erdialdean, ekialdean eta hegoaldean kalteberatasun oso txikiko eta txikiko eremuak daude. Azalera handienekoan akuiferoen kalteberatasuna oso baxua da. Hala ere, bai iparraldean, bai mendebaldean, kalteberatasuna altua da, eta, tarteka-marteka, kalteberatasun ertaina. Udallerriaren mendebaldeko ertzean, akuiferoen kalteberatasuna oso altua da.

Planifikazio-estrategia

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak saihestea izango da irizpide orokorra; ezinbestean mota horretako jarduerak ezarri behar badira, lurpeko urei kalterik egiten ez dietela bermatzeko eskatuko da. Zona horietan garatu ahal izango diren eta lurpeko uren kalitatea arriskuan jar dezaketen jarduerari dagokienez, eremu kalteberak mugatuko ditu garapen-plangintzak, eta baldintza honetarako irizpide orokorraren arabera beharrezkoak diren zehaztapenak ezarriko ditu.

- **Arrisku geologikoak**

Ezaugarriak

Baldintza honetan, era askotako arriskuak daude, bai material geologikoengatik (mineralak, gatzak, ur errektiboak, lurzoru hedakorrak), bai prozesuengatik (luiziak, subsidentzia eta kolapsoak, higadura, azaleko uren eta kostaldekoen dinamikak).

Irizpide orokorra

Baldintza honetan, era askotako arriskuak daude, bai material geologikoengatik (mineralak, gatzak, ur errektiboak, lurzoru hedakorrak), bai prozesuengatik (luiziak, subsidentzia eta kolapsoak, higadura, azaleko uren eta kostaldekoen dinamikak).

Eremua udalerrian

geoEuskadi-n jasota dagoen benetako higaduraren kartografiari dagokionez (USLE reduaren arabera), eremuko zenbait zona sakabanatuta higadura handia dagoela ikusten da (>200 t hektareako eta urteko); zona horiek

udalerrriaren azalera osoaren % 3,4 hartzen dute. Hala ere, Leioako udalerrian, higadurarik gabeko edo higadura txikiko eremuak dira nagusi (0 t ha-ko eta urteko, eta 0-5 t ha-ko eta urteko, hurrenez hurren), eta, nagusiki, Santsoena, Lertutxe eta Aldekoena auzoetan, Txorierriren iparraldean eta Peruriren eta Artearen arteko lurretan dauden larre eta laboreei dagozkie. Higadurarik gabeko edo higadura txikiko eremu horiek udalerrriaren azalera osoaren % 13 hartzen dute.

Planifikazio-estrategia

Arrisku geologikoak areagotzea saihestuko duten garapenak ziurtatzeko arauak eta neurriak ezartzea.

- Baso-suteak

Ezaugarriak

Sutea gertatzeko arrisku oso handia duten baso-eremuak dira.

Eusko Jaurlaritzak egindako Euskadiko zuhaitzietako sute-arriskuaren mapari jarraikiz mugatu dira zona hauek, eta oso arrisku handia dutenak biltzen dituzte.

Irizpide orokorra

Euskadiko Baso Planak biltzen dituen irizpideei eta Plan honetako irizpideei jarraituko zaie basoetan suteak saihesteko prozedurak kudeatzeko.

Eremua udalerrian

Baso-masa gehien dituzten iparraldeko zonak; nagusiki, pinu- eta eukalipto-landaketak dituzte.

Planifikazio-estrategia

Eremu horietan, kontuan izango dira Baso-Suteetako Arriskuaren aurrean Larrialdietako Babes Zibila antolatzen duen Jarraibidea eta EAEko Baso Suteetako Larrialdi Plan Bereziko baldintzak.

- Klima-aldaketaren inguruko kalteberatasun-indizeak

Ezaugarriak

Leioako udalerrian eragina duten indize guztiak dira, baita klima-aldaketaren aurrean euskal udalerriek duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluaziotik datozenak ere, zeina 2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategiatik baitator.

Irizpide orokorra

Klima-aldaketaren aurrean euskal udalerriek duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioak udalerrietarako ezartzen dituen irizpideei eta batez ere neurriei jarraituko zaie.

Eremua udalerrian

Udalerrri osoan hartu behar dira kontuan.

Planifikazio-estrategia

HAPOnen kategorietan, lurzoru bakoitzean gauzatzen den garapenerako oinarritzko baldintza gisa hartzen dira kontuan kalteberatasun-indizeak, eta, udalerrri osoko arriskuaren arabera, klima-aldaketaren aurrean erresilientzia areagotzeko euskal udalerrietako kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioak gomendatzen dituen neurriak jarriko dira martxan. Haietako batzuk HAPOnen berrikuspen honetan jaso dira, hala nola azpiegitura berdea sustatzea eta berdeeguneen eta haietako biodibertsitatearen kontserbazioa eta leheneratzea bultzatzea, ezinbestekoa baita klima-aldaketaren ondorioak kontrolatzeko eta haietatik babesteko.

6.3.3. GAINJARRITAKO BESTE BALDINTZA BATZUK

- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua

Ezaugarriak

